

Sancho el Sabio

A.T.V.
1325

2-LOYOLAKO ARGIZPIAK-2

M. - 4885

R. - 1276

Jesus'en Biotza etxean eta Elizan



Otoitz-Bialguntza lagunentzat

AGIRE'TAR' JORKE J. L.'KO AITAK bildutako
erakusaldi ta otoitzak.



“JESUS'EN BIOTZAREN DEYA”RENEAN

Apartado 73—BILBAO.

1927.

IMPRIMI POTEST
SEVERIANUS AZCONA, S. J.
PRÆP. PROV. CASTELL

NIHIL OBSTAT
JULIANUS EGUIA., S. J.

IMPRIMATUR
✠ FR. ZACHARIAS, EPISCOPUS VICTORIENSIS
7 AUGUSTI 1927,

IRAKURLEARI.

Liburu au "Jesus'en Biotzaren Deyak" Otoitz Bialguntza lagun euskeldunei eskeintzen dien liburutxo da. Lagun oyek Jesus'en Biotzaganako zaletasuna agertu ta zabaldu beař dutela ta, etxean eta Elizan Jesus'en Biotza gurtu ta goratzeko zer egin beař duten adiraztea on iritzi zaigu. Ona emen zergatik atera degun idazti au.

Erakusaldi bat edo beste eta otoitz geiago arkituko dituzu.

Erakusaldiak **Jesus'en Biotzaren Deya'tik** artutakoak dira.

Otoitzak, beřiz, geyen-geyenak Elizan erabili oi diranak. Aita Mendibururenak kendu ezkerodanak. Eta oek jaři ditugu, euskeraz ain egoki ta gozoki egiņak izanik, euskaldunentzat ikusgaři ta ikasgaři izan ditezen.

Gau gurtzaleak egiten ditutenak ere eskeintzen dizkitzugu, Jaunari agiri dagonean ikustaldi ta aguraldi sutsuak egiteko, gai ugari ta on onak dauzkatelako.

Ez dira, bada, gureak otoiz auek. Ez ta Gau-gurtzaleenak ere, baizik Elizarenak. Oek eta guk Elizan egiten diranetatik artu ditugu.

Ekin, bada, ta jaři, Otoitz-Bialguntzako lagun euskaldun guziok, Jesus'en Biotza bene benetan maitatze ta goratze lanari.

Agire'tař Jorke, S. J.

JESUS'EN BIOTZA ETXEAN.



Otoitz-bialguntza lagunak beren etxeak Jesus'en Biotzari eskeñita iduki bear dituzte.

Ta Eskeintza onek zer esan nai duan eta gugandik zer eskatzen duan jakiteko, ona emen JESUS'en BIOTZAREN DEYA'tik artuta «Kristo gure Jauna gizarteko E'regetzat ezagutzeak» zer esan nai dun azaldurik. Gañera «Etxe ta etzekoen Eskeintza Jesus'en Biotzari egiteko era egokia» jartzen degu.



KRISTO GURE JAUNA GIZARTEKO EREGE

Berez erege da Jesus.

Jesus gure Jauna gurutze bati josita ilik ikusi nai zuten judutzañak juan ziran Pazkoa biaramonian (ostiral santu egunean) goizean goiz Pilatos eraentzale (gobernadore) zitalarengana, eta esan zioten: Emen daukagu zure aurrean Nazaret'ara deitzen dioten Jesus. Erege dala ta, or dabil gora beera eri ta uriak nastutzen.

Eskuak loturik, aurpegia txistu zikiñez beteta, etzeukan Jesus maitagarriak erege antzik. Baña berari begiratzea naikoa zan, erege zala esaten bazuan, erege izango zala sinisteko. Etzuan, bada, inork inoiz ikusi Nazaretoko Jesus utsegite txiki bat bakarrik ere egiten; ezta egi egia etzan gauzarik esaten ere. Igarri zion noski Pilatos'ek zerगतik bere aurrea eraman zuten judu gaizto ayek Jesus ona. Ta bere aurrean ain apal eta ixilik ikusi zuanean, galdetu zion: Zer diezu zure salatzaile oyei? Egia al da erege zerala?—Jesus'ek erantzun zion: Ez ditezela gizonetzko eregeak nere bildur izan; nere eregetza ez da emen beeko eregeena bezelakoa; baña egia da, ni erege naizela. Ni bakaldun jayo naiz, au da nik nerez daukat ala edo almena eta eskubidea bakaldun (monarca) edo erege izateko.

Jaungoikoa da eta

nai ta naiez Agintari, Jaun, Jabe, Érege, Bakaldun dala gure Jesus aitortu beara daukagu. Gure euskera garbi ederean zeru luñen Egileari *Jaungoiko* edo *Goiko-Jaun* deitzen diogu. Ez daukagu orain izen au nork asmatu edo nundik datorkigun adirazi bearik. Nundik nai datořela, zeru luñen Egilea «Jaungoiko» deituaz, esan nai degu: Egile au izana duten edo izatea artu dezaketen guzti guztien *gaiñ* dagoen *Jauna* dala. Eta guztien *gaiñ* badago, bera dala berez Jauna, Jabea, Aginteduna eta Érege edo Bakalduna, Jauntasun eta Jabetasun, Aginte ta Bakalduntza dauzkaten guztien lenen lenengo iturburua. Ara zergatik esan zion Jesus'ek Pilatos'i «Ni érege naiz». Bere Jainkotasuna argi ta garbi aitortu ta egiztaturik zeukan ezkerro, esan zezaken esan zuana.

Baña nolako Éregea da gure Jaun maite au? Berak dion bezela, ez gizonezko Agintariak bezelakoa, baizik zerutara, Jaungoikozkoa. Gizonen Egilea ez ezik Eroslea ere bai. Eta ez giñutzan diruaz edo inderéz erosi, baizik bere zañetako odolez. Jesus, bada,

gure Egile ta Eroslea

gizonen eta gizadiaren Éregetzat aitortu eta maitatu bearean gaude. Gizon guztiak ban banaka begiratzen baditugu, eraz arkituko degu guztiak jaunaren mirabeak dirala. Aberats eta

jakintsuak, beartsu eta ezjakiñak bezelaxe ezer-
ez utsak dira Jaungoiko gure Jaunaren aurrean.
Gizonak, alegia, Jesukristo gure Jaunaganako
mirabetza beti berekin darama; nunnai eta noiz-
nai Bere aginte ta Jabetasuna ezagutu beaŕean
dago; nunnai eta noiz nai bere Jaun-Erege
bezela maitatzen ezpadu, ez du bere egiteko-
rik egokiena ta beaŕ beaŕekoena beteko.

Bakoitzari bere izate (naturaleza)-rekin eman
dio gañera Jaunak alkaŕekin bizi naia. Eta ez
bizi naia bakaŕik, bizi beaŕa ere bai. Ezin de-
zakegu, bada, bata bestien laguntza gabe adi-
men eta gogodunari dagokion biziera eramán.

Naitasun eta beaŕ au (alkaŕekin bizitzeko nai
eta beaŕa) betetzeko, gizonak batutzen dira, ba-
tzaŕea (soziedadea) egiten dute. Gizonen batzaŕ,
batasun, alkartasun oni *gizadia*, gizon guztien
soziedadea esaten diogu.

Esan, bada, orain: Nork eman dizkigu al-
kaŕekin batu ta gizadia egiteko nai eta beaŕa?

—Gure Egile dan Jaunak, au da, egizko
Jaungoiko dan Jesukristok, Jaungoiko danez,
eman dizkigu gizadia egiteko beaŕ eta naia.
Beraz, Jesukristo gure Jauna, gizon bakoitze-
na ez ezik, gizadi guztiaren Jaun, Jabe eta
Erege da?—

Egia aitoŕtu nai badegu, alaxe dala esan
beaŕa daukagu, eta alaxe esaten degu poz pozik:
Bai, Kristo gure Jauna

GIZADIAREN EREGE DA.

Ze nolako atsegiña Jesukristo eregetzat eza-
gutu eta aitoŕtzea! Begiratu ongi gogozko be-

giz Jesus gure Erosle (Éredentore) maitea. Len ikusi degu Pilatos eraentzale (gobernadore) gizatxañaren aurrean eskuak loturik gaizkile baten eran. Esku ayek, begira ongi! zeru luñak ezerezetik atera zitun Jaunaren eskuak dira. Ondasunez gu bete nai gaituen Jaungoikoaren eskuak. Besarkatu eta bere biotzeraño eraman nai gaituanarenak.

Argia bera baño argi ta edeñagoa dan arpegia txistuz zikindurik dago. Gero arantzazko burestun edo koroï batez josiko diote burua; buru lañua arantzak uratuko diote; gurutze latz bat artuko du bere sorbalda gañean, eta juango da mendi tontor batera bere zañetako odola ixurtzera. Ara nola agertu nai duan bere Éregetza! Gu, gizon guztiok, Jaungoiko gure Jaun eta Jabearen Jauregi edeñerako bidea galduta etsaiaren mendean erori giñan; eta ez giñan gauza etsai oñen atzaparetatik irtetzeko.

Baña guk ezin dezakeguna Jesus'en guganako maitetasunak dezake. Asmatuko du, bai, nola atera gizon gaixoak etsayaren mendetik; nola ipiñi zeru bide zuzen zuzenean.

Jesus Éregeren asmakizunak.

Bere Jauregitik jetxi, gure soñekoa jantzi, bere sorbalda gañean gure okeñ eta gaitz (pekatu) guztiak arñu, etsayak poñokatu eta oinpe turik utzi, gure lagun, indañ, janari izateko gure artean gelditu! Ara Jesus'en guganako maitasunaren asmakizunak. Ara gure Egile zanak zer egin zuan gure Erosle izateko. Egile danez Érege dana, Erosle danez Érege beñiro egin da.

Jakiñaren gañean gaude nundik etoñi zaizkigun ondasun auek: Jesus'en biotzetik.

Biotz oñetan sortu eta sutu zan guganako maitetasuna. Maitetasun onek, beriz, ekañi zizkigun ditugun ondasun guzti guztiak.

Baña, begirik ez gizonak ondasun auen Emalea begiratzeko!


Negarñariak dira Jesus gure maitalari maitagarñienari biotz bañu bañutik irtetzen zaizkion espak: Ara emen nere Biotza; gizonak ain maite izan dituan Biotza, baña ordaintzaz eskerñgabe-keri ta irañak bakañik arñu dituan Biotza! Onela itz egiten zion Jesus'ek berak bere maitalari zintzo Alakoke'tarñ Margarita Mari Deunari.

Jesus'en Biotzaren Dei au irakuñtzen dezutenak ez dezute itxuak izan nai Biotz maite au begiratzeko. Etzerate, Jaunari eskerñak, Jesus'enganako eskerñgabeak. Biotz maitagarñi ori eza-gutzen asi zeratelako Jesus'en Biotza zuen Eregetzat autu dezute.

Ez aldakizute Jauresturik (entronizaturik) daukagula Jesus'en Biotza gure lau Aldundi (Diputazio)-etan? Eñi askotan ori bera egin dute. Eñi denetan egin bedi, baita Euskalerñiko etxe guztietan ere.

Gure bidez *Jesus'en Biotzak* Euskaldunai egiten dien *deyak* alaxe nai du.





JESUS'EN BIOTZARI ETXE TA ETXEKOEN ESKEINTZA.

AGINDU NAYA

Gizonen artean izugarizko agindu naya dabil garai auetan. Begira nola ari diran beñiketan, noizik bein txurüt bana egiñaz, mai baten inguruan exerita dauden lau gizon oyek: Erusi eta Alemanin au ta ura egin bear litzakela. Gu agintari bagiña, diote, orduan bai zuzen ibili bear ko lutekela eriak eta Diputazio ta Erreinuak!

Eta ardangela oretakoak bezela ari dira beste tabernatakoak, eta *kafe* ta batzar eta alde guztietako gizonak. Gizajoak! Geyenetan, ardoak beren buru motela pixkatxo bat argitu dualako, uste dute mundu guzian zer egin bear dan jakin, eta guziei legea emateko gauza dirala!

Eta bai ete dira Euskalerian ere orelako gizonak? Badira, bai, eta bear baño geyago, noski. Sartzen dira bada, emen ere erderaz *periodiko* deitzen diran «beñi jario» beltzak; eta paperak irakurtzen ditutela ta, ezjakin eta arduragabeko baldañak besterik ez izan aren, jakintsuak dirala uste dute.

(1) Eskeintza au erderaz batzuk "Consagración de las familias", beste batzuk berriz "Entronización" deitzen dute. Bi izenez gauza bat besterik ez dira bi diruditen Jaureskunde (Entronización) eta Sendien Eskeintza (Consagración) auek.

ETXEKO NAGUSIA

Baña mundu guzia zuzendu eta gobernatu nai luteken oyek, bai ete dakite beren etxe ta etxekoak bear bezela zuzen erabiltzen?—Bai zera! Nola erabili besteak zuzen, eurak okeñ badabiltz? Etxeko nagusiak dira, ta beren egitekoa da etxeari ondo begiratzea; baño oyek berenari ez beste guziaz begiratuko diete.

Sendi edo familiko buru danak etxe zalea izan bear du; oyek beriz, ardandegi zaleak dira. Seme-alabak dauzkan aitak bere seme-alaba oyei txiki txikitandik sartu bear diye biotzeraño Jainko gure Jaunaren bildura; baño Jaungoikoari bildurik ez dion etxeko nagusi zabañak, nola erakutsi bildurori bere umeai? Nagusi onak jakin bear du nun dauden eta zer egiten ari diran bere mendeko eta mirabeak; jakiten al dezu zuk, etxeko nagusi zerala diozun oñek, nundik nora ibili oi diran zure seme-alabak, batez ere igande ta jai egunetan? Ezin dezateke jakin tabernan edo jokuan, beste egitekorik ez baleukate bezela dabiltzanak, nundik nora dabiltzen beren seme-alabak.

EMAZTE TA UMEAK

Eta jakiña! Nagusia oñela badabil, mendeko guztiak ere buruz bera ibiliko dira.

Etxeko andreak bilatuko ditu bere senařaren antza duten gizon zabañen batzuen emazteak, elkarganatuko dira, eta an ariko dira marmar-marmar eñi guztia nastutzen, gaizki esaka, ixilik eta izkurtuan egon bear luteken utsegiteak eguzkiaren argira

ateratzen, izen garbiak zikintzen, auzoko istiluak efi guztira banatzen.

Bitartean *seme-alaba gazteak* lasai lasai bileran, pīlarmōnika edo inpernuko etsayen batek aize emanaz jotzen duen soñuz dantz egiten. Dantza lotuan, nastuan edo *balseoan* ere ibiliko dira batere bildurik gabe; ondo dakite, bada, zer esan oi duan amak ori jakiten duanean: *Ze egingo dute bada? gazteak dira ta, gu ere gazteak giñanean..... arduragabeak giñan eta oraiñ..... oraiñ ere arduragabeak gera.*

Onelako erakutsiak ikusi ta, zer ikasiko dute *etxeko aingerutxuak*, euskaleñiko *ume laztanak*? *Zer ikusi, ura ikasi.* Laster eroriko dira lokatz-artean, galduko dute beren garbitasuna, eroriko zaizkie beren ego txuriak, eta ezin ibiliko dira zuzen zeru bidean.

JESUS'EN BIOTZA ETXEKO NAGUSI

Ez det esango Euskaleñiko etxe guziak orain arte aitatu diranak bezelakoak dirala. Añokeri gabe esan dezakegu, euskaldunen artean badauzkala, iñun badauzka, sendi edo famili on onak Jesukristo gure Jaunak. Baña emen ere gaitzak auferapen aundiak egin ditu, eta indar aundia artzen ari da.

Nola, bada, iraun erazi sendi on oyei onak izaten, eta zer egin biurtu ditezen onbidera gaizkitu diranak?

Galdeera oni guztiz egoki erantzuten dio *Otoitz Bialguntzak*: **ESKEÑI JESUS'EN BIOTZARI ETXE TA ETXEKOAK**: Eskeñi Jesus'en Biotzari sendiak, eta onela Jesus'en Biotzaren laguntzaz, eta

Bera etxeko Nagusi ta Agintari dala, guraso, ume ta mirabeak ikasiko dute on onak izaten.

Berak nai du kristau etxeetan agindu; eta ongi, guk baño guztik obeto daki, zerk on egingo diyen gure etxeai.

Guk gere familiak Berari eskeñi ta guk etxeko Nagusitzat Bera aukeratu ta aitu ta, zorionez bete nai ditu gure etxeak, zorionez bete nai gaitu etxeko guztiok!

ZAKEO'REN ETXEAN

Ez al dezute entzun zer esan eta egin zuan lufean zebilela, Zakeo'ren etxean sartu zanean?— Berak agertu zion Zakeo'ri onen etxera juan naya; eta etxera sartu zanean: «Gaur zoriona eldu zayo etxe oni», esan zuan; eta egi egiz, zoriona sartu zan etxe artan, bada Zakeok, pozaren pozez, bere alaitasuna ta zoriona nolabait adirazi naiaz, berebiziko dirutzak eman zitun egun artan beartsuentzat. Poz aundia judutar bati ainbeste diru eman eragiten dion poza!

GURE ETXEETAN

Ori bera egin nai du gure etxeetara etori ta. Guri ere Berak agertu digu gure etxera etori naya. Zakeok bezela etxera ekartzen badegu, eta etxean sartutakoan, exeri dediñ, etxeko nagusiaren aulkia ematen badiogu, berealaxe esango du: «Gaur zoriona eldu zayo euskalefiko etxe oni».

Etxeko nagusiaren aulkitik erakutsiko dio Jesus'en Biotzak *aitari* nola zuzen erabili bere etxe guztia. Lenbizi berari erakutsiko dio zuzen ibil-

tzen. *Amari* esango dio, etxeko andre zintzo ta txukuna izan beaŕ duala, etxeko lanetan ardura-duna, ume ta mirabeai ondo begiratu ta erakutsi beaŕ zayela, etxea atsegingaŕi egin beaŕ duala. *Seme-alaba gazteai* garbitasuna maitatzen, gurasoen esanak zintzo egiten, goiz etxeratzen eta elizkoiak izaten erakutsiko die. Eta *umeai*? — Umeak dira Jesus'en kutunak. ¡Zoritxaŕa umeari gaizki erakusten dionari! Nagusiaren aulkian exeŕita dagon Jesus'en Biotzari loretxo edeŕak eramango dizkiote umeak.

Aita gurea esango dute Jesus'ekiñ batera; aiñ Nagusi onaren itzalpean on onak izaten ikasiko dute.

ADISKIDERIK ONENA

Agintari nagusirik onena ez ezik, adiskiderik onena ere etxeko Buru aukeratu ta aŕtu dezuten Jesus'en Biotz ori izango dezute. Bere etxekoak bezela maite izango zaituzte gaurtik auŕera. Zuen goraberak bere etxeko goraberatzat artuko ditu.

Eldu bada Beragana estualdi guzietan. Gaixotzen zeratenean eraman bere irudi ori zuen gelara. Eriotza datorkizutenean Bera begiratu; Bera ere zuei begira egongo da ta. Bere itzalpean eta bere maitetasunean il da. Berekin batera beti betiko atsegiñetara juango gera.

ESKEINTZA EGITEKO ERA EGOKIA.

OARAK

Jesus'en Biotzaren irudia gerturik egon bedi, mai baten gañean.

Batu bitez, al dala, etxeko danak *Eskeintza* egiteko.

Irudia, oretarako gai bada, onetsi bedi onela:

OLEIZ-OTOITZAK

—Adiutorium nostrum in nómine Dómini.

—Qui fecit caelum et terram.

—Dóminus vobiscum.

—Et cum spíritu tuo.

—*Oremus.*—Omnipotens sempiterne Deus, qui Sanctorum tuorum imagines (sive effigies) sculpi aut pingi non réprobas, ut quoties illas óculis córporis intuemur, toties eorum actus et sanctitatem ad imitandum memoriae óculis meditemur: hanc, quae sumus, imaginem (seu sculpturam), in honorem et memoriam Sacratissimi Cordis Unigéniti Filii tui Domini Nostri Jesu Christi adaptatam, bene†dicere et sancti†ficare digneris: et praesta; ut quicumque coram illa Cor Sacratissimi Unigéniti Filii tui suppliciter cólere et honorare studúerint, illius meritis et obtentu, a te gratiam in praesenti, et aeternam gloriam obtíneant in futurum. Per Christum Dóminum nostrum. Amen.

(*Ultimo aspergat aqua benedicta.*)

Esan guziak «Kredo» sinismena garbi aitortuaz. *Aita gurea, Agur Maria, Gloria* etxean il diranen aldez.

Etxeko buru danak edo Apaizak berak jañi beza irudia bere lekuan.

Al bada, abestu zerbait Jesus'en Biotzari.

Etxeko Buruak edo Apaizak esan beza, itz gutxitan, zer esan nai duan egitera goazenak, au da. Jesus'en Biotz Irudia jañi dan lekuan jartzeak, eta Berari egingo zayon *Eskeintzak*.

IRAKURĪ BEDI ESKEINTZA:

NERE ETXEA TA ETXEKO GUZIAK JESUS'EN BIOTZARI ESKEINTZEKO OTOITZA.

(Pio X'gañenak agindua).

«Kristau etxeetan agindu nai dezula Margarita Mari Doneari adirazi zenion JESUS'EN BIOTZ MAITAGAÑIA!

Zure oñetara gatoz gaur, gure etxeko Nagusitza Zuri ematera. Gaurtik aũera Zugandik datořkigun bizitzaz bizi nai degu. Zuk gořotu dituzun mundutañen zorakeriak guk ere gořoto biziz gořotatuta, gizonen artean beař dan egizko adiskidetasuna ekañiko dutela esan zenduan oitura onak erabili nai ditugu etxeko guztiok. Zure erakutsi guziak guk zintzo sinistuaz. Zuk aginduko dezu gure adimenetan. Zugandik uřutiratu nai gaituzten maitakeri guztiak, gure biotzetatik aldenduko ditugu,

safi Jauna'rtuaz. Zu baka'rik izango zera gure maitea eta gure biotzen Jaun eta Jabea.

Guziok etxean batutzen geranean izan zaitez, ¡Jaungoikozko BIOTZ ONA! gure Buru ta Agintari. Ontzat ar'tu itzatzu gogoaren (animaren) osasuna irixteko eta gorputzari bea' duana emateko artzen ditugun asmo ta lanak. Kendu gugandik buruaste latzak. Ase Zure pozez gure pozaldiak. Atsegin biu'itu gure atsekabeak.

Sendi (famili) onetako i'no'rk naigabetzen bazaitu, gogoratu egiozu, Jauna, eta esan biotzera: Zure Biotza biotz e'fukitsua ta guztiz biguna dala gaizki'e damutuentzat.

Eriotza etxe onetan sa'rtuaz, nega'ez begiak eta samintasunez biotzak beteko diranean, ontzat ar'tuko ditugu Zure erabagiak. Orduan ere Zu izango zera gure poza; elduko dala uste degu, bada, emen gauden guztiok be'iro alka'ekin bat egin da, beti Zu goratzen eta maitatzen egongo geran azkengabeko eguna.

Maria'ren Biotz guztiz garbiak eta guzion Aita Jose Deun maitaga'fiak eramán bezate Zugana gure Eskeintz au, eta gogorazi begigute bizi geraden artean gaur egiñ deguna.

¡¡Gora gure etxeko Nagusi ta gure Aita dan JESUS'en BIOTZA!!

Al bada, abestu zerbait Etxeko Nagusi egin degun Jesus'en Biotzari.

Amaitzeko eman beza Apaiz Jaunak, nai badu, onespena, onela:

«Benedictio Dei omnipotentis, Patris et Filii et Spiritus Sancti descendat super vos et maneat semper. Amen.»



JESUS'EN BIOTZA ELIZAN

Otoitz-bialguntza lagunak Jesus'en Biotza dagon tokian, batez ere, guñtu ta goratu beaŕ dute.

Guñtu ta goratu bezate, beraz, Elizan bere egunean eta agirian dagon beste egunetan.

JESUS'EN BIOTZAREN EGUNEAN.

*Elizkizunik nagusienean esateko Litaniak
eta Eskeintza.*

JESUS'EN BIOTZAREN LITANIAK.

Jauna, eruki zakigu; *Jauna eruki zakigu.*

Jesukristo, eruki zakigu; *Jesukristo...*

Jauna, eruki zakigu; *Jauna...*

Jesukristo, entzun eiguzu; *Jesukristo...*

Jesukristo, adi zaiguzu; *Jesukristo...*

Zeruko Aita Jaungoikoa...

Gizadiaren Salbatzailea zeran Jaungoikoaren Semea...

Èspiritu Santu Jaungoikoa...

Irutasun done, Jaungoiko Bakaña...

Betiko Aitaren Seme Jesus'en biotza...

Ama Birjiñaren sabelean Espiritu Santuak soñtu zinduan Jesus'en Biotza.

Jaungoikoaren Semearekin bategiñik zauden Jesus'en Biotza.

Neuri gabeko aunditasunez jantzirik zauden Jesus'en Biotza.

Jaungoikoaren Eliza Donea zeran Jesus'en Biotza.

Jaungoiko Aundiaren Gela zeran Jesus'en Biotza.

Jaungoikoaren Jauregia ta zeruko Atea zeran Jesus'en Biotza.

Goimaitasunezko labe goria zeran Jesus'en Biotza.

Zuzentasun ta maitetasun ontzia zeran Jesus'en Biotza.

Ontasun ta maitetasunez beterik zauden Jesus'en Biotza.

Onbide guztien osin ondorik gabea zeran Jesus'en Biotza.

Jesus'en Biotz goragañi-goragaña.

Gure biotz guztien Èrege ta Eguzkia zeran Jesus'en Biotza.

Jakinduri ta jakintza guztien gordairuak zugaran dituzun Jesus'en Biotza.

Jaungoikoa Bera bere betetasun guztian bizi dan Jesus'en Biotza.

Aitaren atsegiña zeran Jesus'en Biotza.

Zure betetasunetik guztioi eman diguzun Jesus'en Biotza.

Betiko mendi-bizkañen gurari bizia zeran Jesus'en Biotza.

Eraman eta eruki aundiko Jesus'en Biotza.

Eskean datozkizun guztientzat emale aberatsa Jesus'en Biotza.

Santutasun eta bizitzaren iturria zeran Jesus'en Biotza.

Pekatoriok Zeruko Aitaren asare-gozagañi zaitugun Jesus'en Biotza.

Jesus'en Biotza iguin-burlaz ase ta betea.

Gure gaiztakeriengatik zatitua izan zihan Jesus'en Biotza.

Iltzeraño Aitaren esanekoa izan zihan Jesus'en Biotza.

Jesus'en Biotz lantzaz zulatua.

Poz guztien iturria zeran Jesus'en Biotza.

Gure bizi ta piztuera zeran Jesus'en Biotza.

Gure Aitarekiko pake ta adiskidegañi zaitugun Jesus'en Biotza.

Pekatarioen aldeko oparia zeran Jesus'en Biotza.

Geren ustea Zugan daukagunontzat osasuna zeran Jesus'en Biotza.

Zugan iltzen diranen itxadopena zeran Jesus'en Biotza.

Gizonen pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren Bildotsa...
Barka zaiguzu, Jauna.

Gizonen pekatuak... *Entzun eiguzu, Jauna.*

Gizonen pekatuak... *Eruki zakigu, Jauna.*

Jesus apal eta biotz berakoa.

Egizu gure biotza zurearen antzekoa.

OTOITZA.

Guzialdun ta betiko Jaungoikoa. ¡Zure Seme maitaren Biotzari eta Berak pekatarien alde eskiñitako gorapen ta ordain-sariai begira egiezu, añen; eta eruki-eskean gatozkizun guztioi eman zure barkamena, Jauna; gizaldi ta gizaldietan Zurekin ta Espiritu Santuarekin batean Errege bizi dan Jesukristo zure Seme oñen beraren izenean. Amen.

JESUS'EN BIOTZARI GIZADIA ESKEINTZEKO OTOITZA.

Jesus, Gizadiaren Salbatzaile gozo, atsegiña! Begira eiguzu zure aldare aurrean auspezturik gaude-noi. Zureak gera, zureak izan nai degu, eta zurekin gero ta geiago bat egiñik bizi gaitezen, gutako ba-koitzak bere burua ementxe eskeintzen dizu Zuri.

Askok, zoritxarez, ez zaituzte Zu oraindik ezagu-tzen, beste askok zure Aginduak alde batera utzi-ta baztatu egin zaituzte Zu. Guztiak eruki izan itzazu Jesus on oreak, eta erakari danak zure Jaungoikozko Biotz oretara.

Jauna, artu bizaitzate beren Erregetzat, ez zure mendean beti bizi diranak bakañik, baita zugandik uruti dabiltzan seme galtzaileak ere; datozela, azen, datozela lenbailen beren etxealdera, goseak eta bearez il ez ditezen. Artu bizaitzate beren Erregetzat gezurak iruzurturik edo asareak sakabanaturik dauzkan guztiak; eramaitzu danak egiaren kai ta sinismenaren batasunera, artalde bat eta artzai bat besterik izan ez dedin laister munduan. Artu bizaitzate beren Erregetzat jentilkerietako ta mahomataren arteko ilunpean bizi diranak; erakari itzazu guztiak zure Erreinuako argi ederreara. Begira ezaiozu aizkenik, erukizko begiz, antziña zure kutuna zan erriari; ixuri ezaiozu burutik bera, orain beretzat askastasun ta bizitzazko Bataioa izan dedin, bein batean bere gain izan zedila eskatu zuan odola. Emaiozu, Jauna, zure Elizari osotasuna ta lasaitasun bete-betea; emaiezu erri guztiai zuzentasuna ta pakea: ez dedila, azen, luñ zabalean baztañ batetik besteraño, deadañ au besterik entzun: «Gora Jesus'en Biotza; Berak ekañi digu osasuna, Aintza ta Omena Berari orain da beti». Amen.

JESUS'EN BIOTZA ELIZAN

agiri dagonean guřtutzeko era egoki egokia

Gau-guřtzaleak erakusten digute.

Ikusi, bada, zer egiten duten eta ikasi.

GAUGUŘTZALEEN EGITARAUA.

(Biłera-tokian sařtzerakoan gau-guřtzaleak esan beař du):

Gora gure Jaun Sakramentatua.

Gora beti.

(Ikuřa jařtzean; ixilik)

Zure uztařia biguna da, Jauna, ta zure zama ariņa. Beař bezela eramateko indazu, Jauna, zure grazia.

(Ikuřari mun.)

AŘATSEKO OTOITZAK.

Menpetasun-aguřa egiteko otoitza.

Oř Sakramentu Santuan zauden gure Jaun eta Jaungoikoa.

Ona emen gure eřege ořen auřean zure gau-guřtzale-taldea.

Zure amaigabeko eřukiak ekařita gatoz zure oņetara, guk merezi izan ez ařen.

Eskeřak Jauna!

Guřtzen (adoratzen) ez zaituztenen ordeZ Zu guřtzera gatozkizu; biraoz ta itz zatařez oinperatzen

zaituztenen ordez Zu goratu ta bedeinkatzera; biotz-biotzez damututa, geron eta mundu zabaleko oben, pekatu guzien ordaña eskeintzera batu gera; Jaungoiko zuzenaren aseírea itzali dedin, gure otoitz eta eskariak zureekin batzen ditugu bere eruki ondusunak lenbailen luíera erakaítzeko.

Zeroírek esana da: eskatu ta iritxiko dezute, bilatu ta arkituko dezute, dei-egin eta zabalduko zaitzute. Ona ba emen zure Biotz Donsuaren ateetan oska; Ama Birjiña ta gure Done Zaitzariak bitaíteko ditugula ongi artu gaitzazu, arén, ta ementxe bakar-tokian entzun dizazkiguzu gure eskariak.

Guzia dezakezun Érege oíri auzpez eta uste oso-osoaz erakusten dizugu gure eskarion agiria.

(Emen erderazko esku-liburuak 30'n diona egiten da).

Eskatzen dizkizugunok ontzat artu ta iritxi ezazkiguzu, zure gorapenik aundienerako ta gure betiko onerako izatekotan.

Gañerontzean, zure gogoko izateko zer eskatu beaí degun ere ez dakigu guk-eta Zeroírek erakutsi zaiguzu eman nai diguzuna eskatzen, eta Espiritu Santuak otoitz egin dezala guregan intziri aundi beroez. Amen.

Ama Birjiñari Bernardo Donearen otoitza.

Oroitu zaitte gure Maria Birjiñ Ama erukioía, Zuregana laguntza eske joan ta lagundu gabe iñor utzi dezunik ez dala entzun egundaño. Uste onen pozean gatoz Birjiñen Birjiña oréngana. Gure pekatuengatik negárez ona emen gu Jaungoikoaren Ama oíren oñetan intziriz. Entzun, arén, gure eskariak eta iritxi eskatzen dizuguna. Amen.

Paskual Bailon zerutar' gure:-: Zaitzale Doneari otoitza :-:

O gure Jaun eta Jaungoikoa, zure Go'putz eta Odol baliotsuenganako maitasun a'riga'riz Paskual zure aito'le zoriontsua apaindu zenuan o'rek emai-guzu guri ere zure zerutar' janari o'retatik done (santu) ark bezelakoxe biotz beroa atera dezagula. Amen.

Taldeko izeneko Doneari otoitza.Gotzaiak-edo agindutako otoitza.Aingeru doneei otoitza.

A'ren eskatzen dizugu toki onetan zauden gure Jaun maite o'ri etsaiaren azpikeri guziak emendik u'rutiratu dizazkiguzula; emen gurekin dauden ain-geruak gorde ta zaitu gaitzatela ta debozioa ugaldutela; ta Sakramentu itzalga'ri o'retatik bedein-katu gaitzazu beti ta beti zure adiskidetzatza guregan izan dediñ. Amen.

Gau-gurtzale guzien otoitzetan-:- alkartzeko eskaria -:-

O Jesus gozoa, Osti agur'ga'ri o'retatik zure Beti-ko Aitari gure alde otoizka zauden betiko Apaiz eta gure Erosle maite-maitetsua, zure jainkozko Biotza-ren irabaziengatik ongi a'rtu itzazu, a'ren, gau-gur-tzale guzien eskariak Zuri oben-ordaña eskeñi ta Zu

maitatzeko gogo ber-beraz bat bat eginda Españian eta mundu guzian ordu abetan gaubelan gauden guzioen eskariak, orain Zu bazteraturik ikusita naigabetzen geran guziok, gero aingeru ta gizonak amaigabeko egunetan Zu goratzen auzpez ikusita Zurekin batean pozez bete gaitean. Amen.

PEKATU-ORDAINGARRITZAKO OTOITZA.

(Azkenengo gaubelakoa ez beste guzietako ordu erdia jotzean, eskui-aldeko lenengo guztzaleak (adoradoreak) otoitz au esango du).

Gure Jaungoiko maite anima-salbatzailea: arpegiak lotsaz estalita auzpezten gera zure aurrean; eta gure maitez intzirika zauden Sagrario ixil ortara gure begiak jasota, biotzak naigabez erdibi egiten zaizkigu gizonak orain azturik zaukatela ikustean; zure Odola ta neke-miñak eta gizonenganako zure maitasun neurigabea askorentzat alperrikakoak izango dirala ikustean. Ona emen gu, Jesus gozo orain aurrean, gau onetan gure naigabeak zurekin batzera gatoz, gure negar-malkoak Zuk guregatik ixuri zenituen odolezko negar-malkoekin bat egitera; eta Zuk zure erakitasun mugagabez orain egiten uzten diguzun ezker, otoitz egiten ez dizutenengatik otoitz egiten dizugu Jauna, madarikatzen zaituztenengatik bedeinkatzen zaitugu, biotzagabeki baztereraten zaituztenengatik adoraten zaitugu, ta biotzbiotzetik nai zaitugu bedeinkatu ta goratu zure Biotz maitati orain berotasun guziaz gau onetako une guzietan, eta luñeko Sagrario guzietan.

Igo bitez, Jauna; Zureganaño, naigabe onek gure biotz damutuetatik ateratzen ditun deadaŕ eta otoitz ordaingaŕiak:

(Eskui-aldeko lenengo guŕtzaleak).

Gure pekatuak, gure guraso, senide ta adiskideenak, mundu guzikoak.

Egiten zaizkizun saldukeri ta dongekeriak, aseŕe ta goŕotoak.

Birao nazkagaŕiak eta jai-egunetako pekatuak. Loikeriak eta lizunkerizko eskandaloak.

Lapuŕeta ta bidegabekeriak, argalkeri ta esamesan-bilduŕak.

Eliz Ama Donearen aginduetara makuŕtu nai ezak, eta barauŕ-austeak.

Ezkonduen pekatuak, gurasoen arduragabekeriak, seme alaben gaiztakeriak.

Aita Santuaren kaltezko txauŕkeriak.

Obispo jaun, apaiz, praile ta mojen kontrako erasoak.

Zure irudi agurŕgaŕiei egindako okeŕak, elizetako gaizki-egoteak, Sakramentuak beaŕ ez bezela aŕtzeak eta Sagrario santu oŕen kontrako zataŕkeriak.

Paper eta periodiku txauŕen gaiztakeri ta kalte aundiak, deabruzko giza-batzaŕ galduen azpikeri gaiztoak.

Galtzeko zorian dauden kristau zuzenentzako, zure grazian gogoŕ egiten dioten pekatariantzako ta miñez dauden guzientzako.

E. Erukia, Jesus, erukia.

Erukia ta barkapena, Jauna, zure graziaren beaŕik geien dedan onentzat; zure begi erukitsu oien argia ez dedila guregandik iñoiz aldendu; gure

biotz aldakoŕ abek zure aldareko Bizitoki oŕetan lotu; soma ditzatela oŕ zure maitasunaren sugaŕak; eta gure eskeŕgabekeria ta gaizkiak gogoratuta, naigabez urtu ditezela, odolezko negaŕ-malkoak ixuri ditzatela ta maitasun-maitasunez iltzen bizi ditezela gure biotz abek. Amen.

Eriotz-zorian daudenen alde

-:- otoitz egin zagun -:-

Gure animenganako maitasunez sutan zauden Jesus eŕukioŕ-eŕukioŕa! Zure Biotz Dontsu oŕen il tamu laŕiagatik eta zure Ama Garbiaren oñaze aundiengatik, eriotz-laŕietan dauden eta gauŕ il beaŕ duten pekatari guziak zure Odolean garbitu itzazu, aŕen. Amen.

Agoni-laŕietan egoniko Jesus'en Biotza.

E. Il agiñean daudenetaz eŕuki.



ALDAREKO JESUS'EKIN ORDU LAURDEN.

(Otoitzaldiak amaitu ondoren gaubela bitartean meditazio egiten laguntzeko jaitzen ditugu gogorakizun abek. Gau-guñtzaleak aben ordez besteen batzuek erabili nai baldin ba'ditu, naiz ta bere biotzetikako etoriari jaraitu nai baldin badio, ondo egingo du.)

Seme, nere gogoko izateko ez dezu asko jakin beařik: naikoa dezu ni asko maite izatea. Itz egidazu ba, bilduřik gabe, zure adiskiderik ařtuenari, amari, anaiari egingo zenioken bezela.

Norbaiten aldeko eskakizunen bat egin beař al didazu? Esadazu bere izena, zure gurasoena dala; naiz senide naiz adiskideen batena dala; esan oraintxe oien alde nik zer egitea nai dezun. Asko eskatu, asko; ez motz gelditu; beren buruak aztu ta besteen alde asko eskatzen duten biotz aundiak zaizkit neri gogoko. Itz egidazu ořelaxe lau-lau, zuk poztu nai zenituzkean beařtsuen alde; miñez ikusten dituzun gaxoen alde; bide oneratu nai zenituzken pekatarien alde; beřiz ere zure ondoan ikusi nai zenituzken uřutiratutako lagunen alde. Guzien alde itz bat bederen esadazu; bařna lagun-itza, itz bero biotzetikoa. Gogoratu ezadazu biotzetiko eskari guziak entzungo ditudala agindua daukadala, ta ¿biotzetikoa izango ez da ba zure biotzak bereziki maite dituanen aldeko eskaria?

Eta zerořentzat ¿ez al dezu ezer beař? Beař dituzun guzi-guziak esan ezazkidazu ementxe banan-banan nere aũean. Ařgi ta gařbi esadazu ařo-xamařa zerala, eroso ta nasai-zalea, agian zerekoia, aldakořa, nagia... ta eskatu gero txařkeri oiek guziak zuregandik kentzeko egiten dituzun ekiņei indař eman dizaiedala.

Nere anima gaxo ori! ez lotsatu. Len utsegite oiexek izan zituenetakoak baldin ba'zeneki zenbat eta zenbat dauden orain santu aundi egiņik zeruan! Baņa umilki ta apal otoitz egin zuten...: eta apuř-apuřka zearo jauřti zituen!

Gorputz eta animako ondasunak eskatzen ez atzera gelditu: osasuna, buru ona, arazo ta ikaskintzetan auřerapen aundia... Ori guzi ori eman dizakezut eta eman ere egiten det zure onerako izan ezkerro, ta zerořek eskatzea nai det. Orain zeren beař zera? Zer egin dezaket zure alde? Zure alde egiteko daukadan gogoa ikusiko ba'zenu!

¿Ez al darabiltzu orain esku-ařtean asmoren bat? Esadazu dana zeatz-zeatz. Zer kezka daukazu biotzean? zer darabiltzu buruan, zer nai dezu? ¿Zer egitea nai dezu zure anai, ařeba, lagun edo nagusiaren alde? oiengatik zuk zer egin nai zenuke?

Eta Neregatik? Ni goratzeko gogorik ez al daukazu? Ez al zenuke zerbait egin nai Ni agian aztuta naukaten zure senide edo lagun maiteen batzuegatik?

Biotz guzien jabea Ni naiz, seme, ta bigun-bigun, beren gogora, Neronek nai dedan aldera eramaten ditut.

Naigabeturik edo goibeldurik al zaude? Esan, anima naigabetu ořek? esan zure pozik-ezaren zer-

gatik guziak. ¿Nork mindu zaitu? nork zauritu zaitu? nork bazteferatu zaitu? Atoz nere biotzera, zure zauri oiek guziak sendatzeko gozoa emen arkituko dezu-ta. Danaren beñi emaidazu, ta azkenean Neronek bezela guziei barkatzen diezula esango didazu, dana azten dezula, ta oñen ordez... nere poza ta bakea eramango dituzu.

Kezkatsu al zaude? Nondikoak diran jakin ez añen ere, biotza goibeltzen dizuten iluntasunak somatzen al dituzu? Nere besoetara etoñi zaite. Zurekin nago; zure ondoan naukazu zuri entzuten, eskutik utzi gabe.

Len ongi alkañ artzen zenutenen bat, orain ez zergatik eta ez argatik, zuregandik urutiratuta al dabilkizu? Otoitz bere alde, ta zu zerurabidean atzeratzeko ez baldin bada, atzera Neronek zureganatuko det.

Eta Neri emateko pozaldirik ez al dakañtzu? Zergatik ez didazu ba esaten zure lagunik onena naizen oni? Azkenengo egin zenidan ikustaldia ezkerro ea zer poz-atsegin izan dituzun. Onenean ustegabeko zorionen bat izan dezu; bildur txaren bat aienatu zaizu; beñi pozkañiren bat; idazki bat, maite-agiri bat...: eragozpenen bat azpiratu, estualdiren batetik ongi atera... Neronek egiñikoa dezu ori guzi ori, Neronek zuzendua; ez al didazu guziengatik eskeñ ona erakutsi beañ? Semeak aitari bezela ez al didazu esan beañ: aita, eskeñik asko? Eskeñ onak ondasun beñiak ekañ oi ditu, ongileak eskeñ ona ikusi nai izaten du-ta.

Eta ez al didazu ezer eskeñi edo agindu beañ? Ba-dakizu biotz-bañua ikusten dedala; gizonak eñaz atzipetu ditezke, Jaungoikoa iñola ere ez: toles gabe itz egidazu ba. Bekaturako añizku artan geia-

go ez jaítzeko erabakia bai al daukazu? gaitz egin zizun zer ura betiko uztekoa? burua nastu zizun liburu ura geiagoren geiago ez irakuítzekoa? animako bakea asaldarazi zizun arako arekin geiagoren geiago artu-emanik ez izateko asmo sendoa bai al dezu?

Gaizkiren bat egin zizula-ta, oraindaño goñotoa izan diozun beste arako ari gozo ta leun itz egingo al diozu emendik auñera?

Zoaz beñiz ere, nere seme maite ori, zure eguneroko egitekoetara, zure lantegira, zure etxekoengana, zure ikasteetara... baña ez aztu emen nere Bizitegi onetan biok izan degun alkar-izketa edeña. Al dezun guzian ixilik, begirunez, eratsu, eramankor eta guziekin maitetsu izan zaite. Ama Birjiña nere Ama maite ezazu, zurea ere ba-dezu-ta... ta urangoan ere atoz Neregana biotza oraindik maitetsuago, nereago dezula: nerean egunean-egunean maitasun, ondasun eta atsegin beñiak arkituko dituzu.



IRUTASUN DONE-DONEARI TRISAJIOA.

GABERDIKO AMABIETAN

(Guziak belauniko)

ESKUIKO LENENGO GURTZAĒLEAK

(Ezpañetan gurutzea egiñaz)

℣. Domine labia mea aperies.

(Beste guziak batera)

℞. Et os meum annuntiabit laudem tuam.

(Eskuiko lenengoak «Aitaren» egiñaz)

℣. Deus in adiutorium meum intende.

(Guziak)

℞. Domine, ad adiuvandum me festina.

(Guziak makuřtuta)

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto, etc.

Alleluia. *(Garizuman)* Laus tibi Domine, Rex
æternæ gloriæ.

DAMU-EGINTZA.

ESKUIALDEKO LENENGOAK.

Jaungoiko guziz maitagarria zeran Aita, Seme
ta Espiritu Santua! Zuregan siñisten eta itxedoten
det, eta biotz-biotzez, gorputz eta anima ta almen
guzi-guziez zaitut maite; ta zerana zeralako, nere

Aita, nere Jaun eta Jaungoiko ezin ohea ta maitagarriagoa zeralako, damu det, Irutasun Donea, damu det, Irutasun erukioia, damu det, Irutasun maitagarria, damu det Zu naigabetua; ta zure graziaz lagunduko didazulako ustean Zu beriz atsekabetu baño il ere naiago dedalako itza ematen dizut. Zure ontasun eta erukitasunari begiratuta, nere pekatu guziak barkatuko didazula uste det eta emango didazula Zureganako egizko maitasun eta bañenbañeneko zaletasunean irauteko laguntza. Amen.

ABESTIA.

(Eskuialdeko lenengoak)

Joan da suzko euzkia;
Iru ta Bat zeran Orek
eman ilun gabiltzanoi
zure betiko argia.

(Besteak) Goizean gora-zaitugu,
aratsaldean ere bai;
iguzu, ba, zeruetan
goratu zaitzagula alai.

(Eskuiko lenenak)

Guziak maku.) Aitari ta Semeari
t'Espiritu Santuari
beti-beti etengabe
aintza, gorapen ugari.
Amen.

Eskuialdeko lenengoak Aita gure bat esanda,
urango:

Santu, Santu, Santua, gudarien Jaun ta Jainkoa,
zure gorapenez beterik daude zeru-goiak eta lurak.

Guziak tonu berdiñean eta geldi erantzuten dute:

Aintza Aitari, aintza Semeari, aintza Espiritu Santuari.

¿Au bederatzibider esaten da aldizka; bederatziko bakoitzaren azkenean, burua makurtuaz, Gloria Patri).

(Bigarren Aita gurea ezker-aldeko lenengoak esaten du ta baita Santu, Santu, Santua ere, guziak Aintza Aitari-ta erantzuten diotela).

(Irugarren Aita gurea eskuialdeko lenengoak len bezela).

OTOITXOA.

Jaungoiko Aita Betikoa; Jaungoiko Seme bakarra; Jaungoiko Espiritu Done Pozkilea; Jaungoiko Bakar Irukoitza, biotz-biotzez aitortzen eta goratzen eta bedeinkatzen zaitugu; gora ta gora Zu amaigabe guzian. Amen.

℣. Gora Aita ta Semea ta Espiritu Santua.

℞. Gora ta gora orain ta beti. Amen.

OTOITZA.

Jaungoiko Bakar Irukoitza, amaiguzu eten gabe zure grazi, maitasun eta alkartasuna, Jaungoiko Aita, Jaungoiko Semea ta Jaungoiko Espiritu Donea Jaungoikotasun bakar batean beti ta beti amaigabeko urteetan maitatu ta goratu dezagun. Amen.

IRUTASUN DONE-DONEARI IRU
GORAKUNTZAK.

(Eskui-aldeko lenengoak)

Jainko Bat, Irukoitza;
Zu goratzen zeruan
Aingeru Kerubiñak:
¡Santu, Santu, Santua!
Jainko maite-maitea
emen auzpez guziok;
guri, añen, barkatu
pekatu ta gaizkiok.

(Guziak)

Jainko Biotz-berea;
Zu goratzen zeruan
Aingeru-Kerubiñak:
¡Santu, Santu, Santua!

(Lenengoak)

Iru ta Bat zera Zu
gure Jainko Aundia
Zugandik datořkigu
ondasun ugaria.

(Guziak)

Jainko esku-zabala
Zu goratzen zeruan
Aingeru-Kerubiñak:
¡Santu, Santu, Santua!

(Eskuikoak)

Isaia Igañleak
entzun zitun Jainkoak
zeruetan dituan
gorapen goi-goikoak.

(Guziak)

Jainko Aundi-aundia
Zu goratzen zeruan
Aingeru-Kerubiñak:
¡Santu, Santu, Santua!

(Eskuikoak) Zeru goi-goietako
 iru gorapen abek
 inpernuko etsaien
 kontra indaía daukate.
 Jainko indaítzu-altsua
 Zu goratzen zeruan
 (Guziak) Aingeru-Kerubiñak:
 ¡Santu, Santu, Santua!

(Eskuikoak) Ustegabeko iltzeak
 gaitz, ekaitz, luí-ikarak
 uxatzen ditu uruti
 otoitz onen indaíak.
 Jainko gure Egilea
 Zu goratzen zeruan
 (Guziak) Aingeru-Kerubiñak:
 ¡Santu, Santu, Santua!

(Eskuikoak) Luí, itsaso ta aidean
 ta sutan, gure alde
 ageítzen dan uztergi
 zerutaía da au ere.
 Jainko poz-emalea
 Zu goratzen zeruan
 (Guziak) Aingeru-Kerubiñak:
 ¡Santu, Santu, Santua!

(Eskuikoak) Jainko zuzen-zuzena
 zure bildur gera gu
 Zu bigunarazteko
 otoitz au ba-daukagu.
 Jainko erukioía
 Zu goratzen zeruan
 (Guziak) Aingeru-Kerubiñak:
 ¡Santu, Santu, Santua!

(Eskuikoak) Jainko biotz aundia
gorapen edeí abek
noizbaitean zeruan
kanta ditzagula aén.

Jainko goragaía
Zu goratzen zeruan
(Guziak) Aingeru-Kerubiñak:
¡Santu, Santu, Santua!

(Eskui-aldeko lenengoak)

Irutasun danaren
Bizitoki zerana
gora Zu ere, gure
Ama maite laztana.

Jainko Bat Irukoitza
Zu goratzen zeruan
(Guziak) Aingeru-Kerubiñak:
¡Santu, Santu, Santua

OTOITXOA.

(Eskui aldeko lenengoak)

Gauza guziak ezerezetik atera ta bere eskuz
darabilzkian Irutasun Done-Donea, donetsia orain
eta beti ta azkenik gabeko betiraunde guzian. Amen.

℣. Gora Aita ta Semea ta Espiritu Donea.
℞. Gora ta gora orain ta beti. Amen.

OTOITZA.

(Eskui-aldeko lenengoak)

Zure Jaungoikotasun aundi bakaía Irutasunean
guítzeko egiazko siñismena zure mirabeoi azaldu

zenigun Jaungoiko guzialdun Betikoa, aŕen eskatzen dizugu, Jauna, siñismen onen sendotasunak gaizbide ta zoritxaŕ guztietatik uŕutiratu gaitzala. Amen.

PARKAMENAK IRABAZTEKO ESKEÑIA.

(Eskuialdeko lenengoak)

(Guziak belauniko)

Zure aŕean auzpezturik gura Eliz Ama ta Aberiaren premien alde otoizka gauzkazu, Jauna, Katoliko-siñismen donea zabaldu dedila; siñauste (erejiak) amaitu ditezela; kristau-agintarien aŕtean pakea ta batasuna izan dedila; siñisgabeak, siñausle (erejeak) eta pekatariak bide oneratu ditezela, eskatzen dizugu; itxitegietan, gexorik, ia ilean daudenen alde, itsasoetan eta bideetan dabilzanen alde, Garbitokiko anima gaxoen alde ta gure Eliz Ama Donearen asmo guzi-guzien alde otoitz egiten dizugu, Jauna. Amen.

(Semitonoan eta makuŕ-makuŕ eginda)

Bedeinkatua ta goratua Aita ta Semea ta Espiritu Santua Irutasun Done-donea, ta Aldareko Sakramentu Santua ta Maria Birjiña gure igesleku ta Ama maitearen Soŕtze garbi orbaingabea. Amen.



GOIZEKO OTOITZAK.

(Gurutze santuaren *ta gañerakoak erderazko liburuak dion bezela*).

(*Pazko aldian ez beste guzian*)

Jauna gizon egin zaneko Misterioa agurtu ta biotz-biotzetiko esker onez] goratu dezagun. Angelus...

(*Pasko aldian*)

Jaungoiko-Semearen ilen artetiko Piztea agurtu ta biotz-biotzetiko esker onez goratu dezagun.
(*Guziak zutik*) Regina cæli...

(*Belauniko*)

Jaunari, Berak egin dizkigun ontarteengatik gure esker ona agertu dezaiogun eta gaurko gure lan guziak eskeni ditzaiozun Berari.

Eskerak, Jauna, biotz-biotzez, gure bizitza guzian eta batez ere gaurko gau onetan egin dizkiguzun mesede guziengatik. Egun beri au ikusten baldin ba'degu, Zerori zor dizugu ta zure mirabetzan igaro nai degu ta gure bizitzako gogorapen, itz, lan eta naigabe guziak Zerori eskeintzen diz-

kitzugu. Gure bizitzaldiko egun guziak bedeinkatu, Jauna, gure egite ta eramakizun guziak zure maitasun uts-utsezkoak eta zure gorapenik aundienerako izan ditezen.

(Ixiġunea)

Otoitz-Bialguntza (Apostoladuko) otoitza.

(Ixiġik)

Ene Jesus maitea! Maria'ren Biotz garbiaren bitartez eskeintzen dizkitzut egun onetako otoitz, lan eta neke guziak, egiten dizkitzuten atsekabeak ordaintzeko ta zure Biotz Donsuaren beste asmoetarako.

(Gero, au ere ixiġik).

Baita gau onetan ezer onik irabazi ba'det ere, nere Jaun eta Jaungoiko oñi eskeintzen dizut Españi'ko gau-guġtzale-batzañak eta gauñko gau-bela onek dituen asmoetarako.

Deitu dezaiogun gure Ama maite Birjiña Maria-ri, Aingeru Zaitzariari, gure izeneko Santuari ta gau-guġtzaleen Zaitzari zerutañari.

Jaungoikoaren Ama ta gure Ama zeran Maria Birjin laztana, zure kerizpe ta erukipean jañita gauzkatzu. Gure zirikaldietan Ama maite ori izan zakigu gure igesleku, naigabe-aldietan gure poza ta orain eta bizi guzian eta batez ere eriotzako orduan izan zakigu zure Seme Jaungoikoarekiko bitarteko altsua.

Gure Aingeru Zaitzaria, gure pausoen gidari leial maitagañia! lagundu zaiguzu Jaungoikoaren grazizko deiai zintzo jañaitzen, Jaunaren legeko

aginduetatik aldendu gabe, beti zuzen ibili gaitezen.

Gure izeneko Santu Doatsua; zure izena pozik daramagunok zaitu gaitzazu, ta otoitz, guk ere emen luñean zure antzera Jaungoikoaren naia egin ondoren, gero zeruan ere zurekin batean beti izan gaitean.

Eukaristi-Batzařetako zeruko Zaitzari zeran San Paskual Bailon doatsua; erakutsi ta lagundu guri Aldareko Sakramentua gero ta obeki guřtzen (adoratzen), ta gero ta maiteago izaten, zeruan Aita, Semea ta Espiritu Santua menderik mende ta beti beti guřtu dezagun. Amen.

Gure Jaunartzeko gertaera

(Gabeko buruak)

Zeruko ogia gure biotzetan alik ondoen artzeko gertu gaitean.

GOGORAPENA.

(Exerita. Nai izan ezkeru, ixilik ere norbere artara egin diteke.)

(D) ¿Nor dator Sakramentuan?

Jaungoikoaren Seme berbera..., Aita Betikoak beronen bitařtez gauza guziak egin zituan. Jakinduria..., gizonongatik luñera jetxi ta Andre Mariaren eřai garbietan gure aragiz jantzi zana..., gizon egin eta gure pekatuak bere gain arřtu ta gu betiko zeruratzearen neke-oñaze askoren ondoren Gurutzean il zana..., gu azkeneraño ezin ta geiago maite gaitualako, guk Bera jan, Beragan bizi, ta Beragan

biurtzearen Osti Santu Done onetan egiz ta benetan gelditu zitzaiguna... (*Geldiunea.*)

¿Norengana dator?

Berak egindako izaki batengana... Jaungoikoaren onegiñentzat esker txarra besterik ez dedan izaki zirtzil onengana...; pekatuak onenbeste bider loitutako onengana...; autsa ta utsa ta ezerez onengana... (*Geldiunea.*)

¿Nola dator?

Zeru luñen Jaun ta Jabea bere aunditasun izugarria izkutatuta dator..., gure txikitasuna ez atzertzearen, ogi-puxkaren irudi zuripean ostenduta dator... (*Geldiunea.*)

¿Zertara dator?

Bere maiteen artean grazi ta doaiak eskuak be-tean zabaltzera dator..., osasuna, aberastasuna, edertasuna, gorapen, aginpidea, dana emango digu zeruratzeko ongi baldin ba'datorkigu..., gaitz, eri, gose, lotsari, inork ez aintzat artze, besteren mendean egote... abek guziak ekariko dizkigu zeruratzeko bea baldin ba'ditugu... maitasunak, neuñ gabeko maitasunak, aita-maitasunak, anai-maitasunak, adiskide-maitasunak... ofexek darakañ beti gure biotzetara.

(*Geldiunea. Eta gero, Meza edo Jaunartze-auñetxoan.*)

(*Gau-buruak argi.*)

Gure Salbatzañe maitearenganako siñismen, itxedopen eta maitasuna piztu ditzagun gure biotzetan eta pekatuen damu bizi-biziaz biotzak urtuta, esan dezaiogun belauniko:

(D) Akino'ko Tomas Deunaren otoitza.

Nere Jaun eta Jaungoiko alguziduna.

Biotz-gosez eta begirapen aundiz goaz zure Seme eta gure Jaun Jesukristo'ren Sakramentua ar-tzera. Basauntza iturri garbira bezela, itsua argi-bila, efukaria efuki eske bezela gatoz Jauna Zuregana, eskeko beartsu bezela Zeru-luñen Jaun aberats esku-zabal ofengana.

Gure Jaungoiko aberats, efukitsu, emale ori a'ren baño a'ren eskatzen dizugu ba gure animako gaitzak sendatu ditzazula, gure zauriak osatu, gure loiak garbitu, gure baru ilunak argitu, gure biotz beartsua aberastu, bilutsik dagoen anima au jantzi ta gure almen eta zentzun guziak zuzendu ditzazula.

Iguzu, a'ren, Jauna, aingeruen Ogi ori, Eregeen Erege ta agintarien Agintari ori gauza guzien Egile ta guzien poz eta atsegin zeran ori artu zaitzagula bea' bezela.

Gure animen betiko osasun eta onerako artu zaitzagula, begirapen aundiz, pekatuen damu biziaz, asmo zuzenez eta biotz beroaz, siñismen sendo, itxedopen aundi ta maitasun gartsuaz umil-umil artu zaitzagula gure Jaun ori.

Artu dezagula, a'ren Jauna, Jesus'en Gorputz eta Odolaren Sakramentua ez ezik, baita bere inda', doai ta grazi guzia ere.

O Jaungoiko on efukioa! Emaiguzu zure Seme ta gure Jaun Jesukristo'ren Gorputz, Anima, Jaungoiko ta gizatasuna; Beragan, Berarekin eta Beragatik emaguzu grazia ta zerurako eskubidea.

Emaiguzu Ama Birjiñaren e'rai garbietatik softu ta jaiotako Jesus maite ura berbera.

Emaiguzu Beroŕekin beti-betiko batu, estutu, lotu, alkaŕganatu ta bere zati bizi bezela artu gaitzatela zeruan.

Zure Semearekin batean emaiguzu beti azke-neraño onean iraun eta gaitzetik beti alde egiteko zure laguntasuna.

Egiguzu aŕen, Jauna, orain ogi-irudipean estalirik ziñismenez bakaŕik ikusten degula aŕtzera goazen zure Seme maite ori, argi ta garbi ikusi dezagula zeruan goratua ta bedeinkatua Zurekin eta Espiritu Santuarekin betikotasun guzian.

R. Amen.

Onen ondoren Meza, ta Mezarik ez ba'da, Jaunaŕtzea.)

ESKEŔAK EMATEKO EGINTZA.

(Meza ondoren. eta izan ez ba'da, Jaunaŕtu ta amaŕ minutuan ixilik egon ondoren, gau-buruak, erdian belauniko jaŕita, itzaltsu irakuŕtzen du):

W. Guregatik eskeñi ta eman zaigun Bildots Doneari aintza, gloria, aundikuntz gorakuntzak, aginpidea ta omena beti-beti aldi guzietan.

R. Amen, amen, amen.

(Guziak batera)

Kristo'ren anima, santutu gaitzazu.

Kristo'ren goŕputza, salbatu gaitzazu.

Kristo'ren odola, ase gaitzazu.

Kristo'ren saiets-ura, garbitu gaitzazu.

Kristo'ren nekaldia, indaŕtu gaitzazu.

O Jesus ona, entzun zaiguzu.

Zure zaurien baŕuan gorde gaitzazu.

Zugandik alde egiten ez guri utzi.

Etsai gaiztoengandik gorde gaitzazu.

Eriotz-aldian deitu gaitzazu.

Eta Zugana joateko agindu zaiguzu.

Zure Santuekin batean Betikotasun osoan

Zu goratzeko. Amen.

Bonabentura Donearen otoitza.

(Irakurri)

(D.) Jesus nere Jaun maite gozo oreak josi gure biotz animen eraiak Zureganako maitasun xamuñ atsegiñaren zauri osasungariaz, ta karidade garitsu bero baten suaz sutu itzazu, beti Zureganako irika bizian maitez kixkaltzen eta urtutzen egon ditezen. Zure zale izan ditezela gure biotzak, Zuregan atsedenditezela, Zuregatik il ta beti Zurekin bat eginda egoteko nai bizia izan dezatela.

Iguzu aeren, Jauna, zure gose, aingeruen Ogia zeran oren gose izan gaiteala. Zu zera anima garbien janaria, zeruko ogia, ezti atsegin gozo guziak beragan dituan gure eguneroko ogia.

Aingeruak zuri begira inoiz ez dira aspeitzen. Zure gose izan bitez beti gure biotzak ere, Zuk dariozun ezti gozoak ase bitza gure animen eraiak.

Zu zera bizitzaren ituria, jakinduri-iturri, argi betikoaren ituria, atsegin-iturria, Jaungoikoaren etxe-ko ondasun guzia; beti zure egañi izan bitez ba gure biotzak. Zu bilatu ta Zu arkitu zaitzagula, Zuregana egin dezagula beti ta Zuregana eldu gaitezela; Zu beti gure buruan, Zu gure biotzean, Zu beti gure aoran erabili zaitzagula, dana apal, umil, zuzen, dana maitez, atsegiñez, dana eraz eta gogoz, azkeneraño zintzo iraunez dana zure Izen Donsuaren gorapenik aundienerako egin dezagun.

Izan zaite Zu gure itxedopen bakaña, gure uste osoa, gure ondasun, atsegin, poz, alaitasun eta atsedeen tokia, gure zabaltasun, ezti, usai gozo, janari ta sendotasuna, gure igesleku, gure laguntza, jakinduri ta senipartea, gure ondasuntegi ta zori-ona; Zuregan sustraiak eginda gure biotz animak beti ere beti sendo, aldakaitz eta gogor Zuregan iraun dezaten.

(R.) Amen.

Ama Birjiñari otoitza.

(D.) Itzuli guregana zure begiok Ama Birjin maite oñek, oraintxe gaude zuk begiratzeko ongi-ta. Zure Seme maite-maite onek bere Goñputz-Odola oraintxe eman bait-digu jaten; gure bañuan daukagun zure Seme Jesus'i itz egiozu gure alde ta eskeñi ezazkiozu zure irabazi aundiak guk gurerik ez daukagu zer eskeñirik-eta, uskeriak besterik. Gure ordeZ Zeroñek eskeñak eman ezazkiozu ta iritxi guri, artu degun Sakramentu onek guregandik alde egin baño len eman dizaigula gure goñputz-animentzako bedeinkapen ugari-ugaria.

Loyola'ko Iñazio Donearen otoitza.

Tori Jauna, ta artu nere aukeramen osoa, nere oroimena, nere adimena ta nere naimen osoa; dedan eta daukadan guzia. Zeoñek eman zenidan. Zeoñi, Jauna, itzultzen dizut. Guzi au zurea da. Nai dezun bezela erabilzu: Zure maitasuna ta adiskidetasuna inzkidazu: ez det beste ezer nai eta.

(Au amaituta, Jauna-gordetzea egiten da).

Birauen ordezeko gorapenak.

Gora bedi Jainkoa.

Gora bedi bere izen Donea.

Gora bedi Jesukristo, egizko Jainko ta egizko gizona.

Gora bedi Jesus'en izena.

Gora bedi bere Biotz Jaungoikozkoa.

Gora bedi Aldareko Sakramentu guziz Donea.

Gora bedi Jainkoaren Ama goragañi, Maria guziz Donea.

Gora bedi bere Soñtze Done ta erugabea.

Gora bedi Maria Birjin eta Amaren Izena.

Gora bedi bere Ezkontide guziz garbi Jose Donea.

Gora bedi Jainkoa bere Aingeru ta Santuetan.

BUKAERAKO ALDE EGITEA.

(Ikuñinduna ta argidunak aldare-sañeran. Guñtzaleak bi ereskadetan).

(Batek iru aldiz, gero ta gorago).

V. Gora Aldareko Jaun Sakramentatua.

R. Gora ta izan bedi beti guziz maitatua.

(Azkenean belauniko Sagrario'ra begira)

V. Gora ta gora beti Jesukristo gure Jaun Sakramentatua.

R. Gure Eñege beti-betikoa.

V. Agur, Maria garbi-garbia.

R. Orbanik gabe soñtua.

V. Goazen pakean (jaikiaz).

R. Jesukristo'ren izenean. Amen.

(Ikuñiñari, guzien auretik igarotzerakoan, agur egin buruaz; ta daramanak mun eta gorde).

JESUS GURUTZATUAREN AUREAN.

Emen naukazu, Jesus on eta guztiz gozoa! Zure aurrean bi belaunak luñeratuta. Biotz biotzez otoi egiñ eta eskatzen dizut; biziagotu ditzadazula nere biotz onetan sinismen, itxaropen eta maitasunezko su-gar biziak eta idazula nere gaizkiegiñ guztien damutasuna ta gaurgero besterik ez egiteko asmo sendoa. Bitartean nik gogo bizi ta samintasun garatzez zure bost zauriak gogoratu ta buruan erabiliko ditut, iñoiz astu gabe zutaz, nere Jesus ona! Dabid Igarleak esan oi zuana: "Nere esku oñak zulatu ta nere ezur guziak zenbatu egin dituzte."

"Aita gurea....."

OSTEGUN GURENEKO GAUBELA.

(Apaizak edo Gau-Buruak Epistola irakurri ondoren, guziak belauniko ta besoak gurutze-antzean zabalik dirala, geldiro ta itzaltsu urango au irakurtzen du).

Oñ Sakramentu Santuan zauden gure Jaun eta Jaungoikoa.

Ona emen gure Eñege oñen aurrean zure gau-gurtzale taldea.

Azkenengo Apariko gau itzaltsu gogoangari artan esan zenituen gau-gurtzale guziok beti gogoan euki bear ditugun biotzetikako itz samur abek: Ezin izan al zerate ordu betean nerekin esna egon, nere alde iltzeko alkar berotzen zenbiltzatenok? Ez al dezue ikusten Judas ez dagoela lo? ni judatarei saltzeko nola dabilela egiñalean? Jaiki zaitezte, zirikaldian (tentazioan) sartu ez zaitezten.

O Jesus maite-maitea! Zure azken apari Santuan izan ziran amabi aietatik, iru besterik ez zeuden Zurekin andik apur batera il zori lañian jari ziñanean.... ta irurak lo; gañerakoak Zu utzita alde egin zuten, eta batek jau ikaragarria! zure etsaiai azpika saldu ta aien eskuetan jari ziñuan. Eta au guzi au, amabiak zure Gorputz agurgarria jan eta zure Odol baliotsua edan orduko! Zureganako maitasunez zora-zora eginda egon bear zutenean! Zure adiskide artu aiek beren lenengo jaunañtzea egin ta bereala! Aingeruak berak gizon izan naiago zuketan garai artan!

O gure biotzetako Eñege aundia! Ogia ta ardoa zure Gorputz-Odol biurtzeko esku dontsu agurgarri oietan artu ta begiak Aitari eskerak emateko

zerurontz jaso zenituanean, gizon guzi-guziak begiratzun artan ikusi zenituan. Getsemani-baratzako gertakizuna, zure ikasleen igesa, San Pedro'ren ukatzeak ikusi zenituan, baita ikusi zenituan miloi ta miloika gizonek zure Gorputz-Odolenganako izango zituen arduragabekeri, ta go'oto, ta pa're-ixeka, ta gaiztakeri ta eske' txar' izengabeak ere.

Gau-gu'rtzaleok ere, Jauna, an ikusi giñuzun; antxen geunden gau' gorputz-animetako logalea astinduta Zurekin ordu bete egitera gatozenok antxe geunden zure Biotz maitaga'ri ori naigabetzen.

Antxe geunden gure antzekoren batengan..... antxen zegoan gure iduria... Norengan ordea?

Getsemaniko baratzara eramane eta lo egin zizuten iru aiengan ote? Ezpata atera ta zure alde ekin zuan Pedro'rengan ote? Ala Zu utzi ta iges egin zutenengan? Ala ur'utitik bederen, ja'raitu zizun arengan?... Judas zure saltzalearengan ez ote?

Ai gure eruka'riak! Jesus maitea, Zuk dana ikusten dezu; ta zure begietan gerana, orixe gera, ez besterik.

Batzuek, aulkietan esna egon a'ren, biotz-ba'ruko epelkerian logale dira. Beste batzuek munduko arazo ta goraberetan bula'rtsu, ba'ña siñismen eta erlijioarazoetan makalak. Beste aiek giza'rtan edo munduaren a'urean mila aldiz ukatzen zaituzte; edo beintzat, ez bizia, ogi-puzkatza' bat galtzeko bildu'ak ez dituzte beren buruak zure laguntzat azaldu nai. Beste abek, ja'raitu bai egiten dizute, ba'ña ur'utitik, urtean beintxo baka'rik eta orduan ere zer aundiren bat egingo balizukete bezela ur'eratzen zaizkitzu. Beste batzuek be'riz..... au nega'ga'ria! Jesus Biotz-bera maite-utsa! beste batzuek Judas'ek bezela Mai Donean Zurekin

batera daramate eskua efatilora, zure Goñputza jan eta zure Odola edaten dute, ta gero, gaizkiñak bezela bizkoñ edo saltzale maltzuñak bezela aspika, oñaze ta gurutze berira eramaten zaituzte txarñi jaunañtuaz, ta joan ta beren buruak urkatzen dituzte beren lizunkeri, diruzalekeri, besteenganako bidegabekeri ta gizañterako azal-uskerien zuaitz arbola-tik zintzilik uzten dituztela.

Zure Biotz mindu ori pozteko gutxi izango dituzu; baña, Jauna, gau-guñtzale-talde onetakoak ere pekatari gaxo eñukañiak gerana ikusi ta biotza naigabez betetzen zaigu.

Zuk dakizun bezin eñukañiak izanda ere, Zuregana etoñtzeko ausardia izan degu, gureganako maitasun neñigabe azkenerañoño ori gogoratzen digun Monumentu onen auñera gatozkizu gau aundi onetan. Bai, Jauna, guziok gatozkizu, Aldareko Sakramentu Santu aundi-aguñgañi au utzi nai izan diguzulako biotz-biotzetikako eskerik beroenak ematera gatozkizu zure gau-guñtzale guziok. Gau onetan Zuri lagun egitera gatoz guziok, gureganako onginairik samuñenari esker txarñik beltzenaz erantzun genizun gau gogoangañi onetan. Zu beti-betiko gurekin gelditu nai, ta guk gurutzean josi Zu!

Ta ala ta guziz ere, zure maitasunaren ezaugañi au ez zenuan atzeratu. Gurekin gelditu ziñan, guk beriz ta beriz ere pekatuan bidez Zu gurutzean josi añen.

O Jesus maitati-maitatia, gure Eñeje, gure Jaun ta Jabe ta Burua! Auxe daukagu ta, esker oneko gure biotzak añtu. Garbitu, sendatu, berotu ta zure maitasunean sutu ta kixkaldu ezazkiguzu.

Aldareko Sakramentu Santua Zuk agintzen dezun

bezela gurtu adoratu ta zure Gorputz-Odolak Zuk nai bezela artzen ditugula, gero ta zure gau gurtzale zintzoagoak egin gaiteala emen luñean, guziok egunen batean txaloka ta goraka beti-betiko zeruan jaso zaitzagun.

R. Amen.

(Bi belaunaz agur egin eta alde egiten dute taldeak; aulkietan aldizkoak gelditzen dira).

ZAITZALDIKO ORDUA.

(Gau-belako bikoteak ordu betetik ordu betera aldatuko dira, ondoren datozenekin otoitzik egiteko itxoiten gelditu gabe).

(Eskui-aldeko lenengoak, beste guziak belauniko dirala, urango au irakurtzen du).

Or Sakramentu Santuan zauden gure Jaun eta Jaungoikoa.

Au zoriona Zurekin batean emen ordu betean egotea! Ondo biotz-onekoa zera, Jauna, gabeko ordu ixil abetan zure Bizitegi oñen zaitzaritzat gu aukeratzeko! Gure otoitz motzak zureekin, zure aotik etengabe gure alde darioten neurigabeko irabazidun otoitz oiekin bat egiten uzteko, biotz aundi erukioñekoa zera, Jauna!

Ez ordu bete bakarik, bizitzako ordu guziak ementxe zure aurrean pozik emango genituzke, onen argalak ez ba'giña. Baña onenbesteko zorionik ezin ditekean ezkerro, gau onetan beintzat, eta esker oneko ordu onetan ba'da ere, leñtu dedila, Jauna, esker onez gure biotza, ta beronen usai gozoa, maitasunez lotuta bezela zauden Jaurontzi oñetaraño igo zedila.

Eskeñak, Jauna, siñismena eman diguzulako. Zu oraindik ezagutzen ez zaituzten zenbat eta zenbat erukañik guk baño askoz maiteago izango ez ote ziñuzkete ezagutu ezkerro, ta zure onegiñei zenbategen ez ote liekete guk baño askoz obeki erantzungo? Kristau epel nagiak ba'gera ere, esan dezakegu biotz biotzez: siñisten det, siñisten det Jesus Aldarean zaudena! Bedeinkatua siñismen au! Baña zorion au zenbaterañoakoa dan beañ bezela ezagutu ta atsegin aítzeko gauza ez izateak zearo lotsatzen nau.

Eta gure Jesus on-uts oñek azken aparian eta gero luñbira osoko aldare guzietan erakusten diguzun gureganako maitasun biguna ikusi; Jaungoiko Eñege Aundi oñen gau-guñtzale izateko egin diguzun deia entzun; eta zure agindupean eta mirabetzan bizitzea nolako gozo-bigun-atsegiña dan ezagutu ondoren; munduak beñiz zein gogof eta gaizki aítzen gaituan ere ba'dakigu-ta, Zuregandik alde egiteko zorakeririk iñoiz egin nai ez degula, aspeñtzeke bein ta beñiz esan beañ degu: gizon oro gezuñti, guzia azal-uts.

Zeran guzi ori zure janari ematen zatzaigun Mai Done onetara erakaítzen gaituzulako zer emango dizugu ordañez gure Jaun erukitsu oñi? Gure egafia itotzeko ematen dizkiguzun Katoliko-egiaren ur garbi garden osasungarñen orde z zer emango dizugu? Eta gabazko guñtzaldi abetan zure etxean aítzeaz egiten diguzun omen, ondasunengatik beañ besteko eskeña nola azaldu?

Zure Izen Santua mingañean degula aítuko degu osasun-ontzia edo egingo degu luñean zure borondate santua; baita oñetarako naigabe goñiak, neke aztunak, askoren ikusi eziñak, eta gose-egarñiak eraman beañ baldin ba'ditugu ere, bai ta bizia bera

galdu bear baldin ba'degu ere. Gurutze opa-aña ta aldareko opa-aña, norbere buruaren ukapeneko opa-aña dira; opa-añi onetan Zeori eskeñiko zaitugu zere esku doneetan zeruko Aita Betikoari, Zerori, oparirik gogokoena, esku-erakutsirik edeña zeran gure Jesus maite ori.

Eta au munduaren erdian egingo degu gizonen esamesanen bat ere bildurik gabe; zor dizugun eskeñ onak eraginda artu ditugun erabakiak jainkozkoak dira, Jauna; ta erialde, elege ta izaki guzien gain zure Egegetza jaitezko alegin guziak egiñaz beteko ditugu. Zure itza degu gure indaña; Zuk agintzen diguzu garaile naiz garaituak izan, eriotz edeña izango degula.

Eta garaile ateratzea uste degu ta zeruetako betiko eñeinoa gureganatuko degulakoan gaude, gu zure mendeko moñoe gauza-ebak izan añen, burukaldian Zeorrek eutsi ta zuzperñtu ta indañtuko gaituzu-ta. Bai; zure mendeko moñoeak gera ta gure Eliza Ama Donearen esaneko semeak. Bai; zure moñoeak eta Berak bere burua Jaunaren mirabetzat aitoñtu añen, Jaungoikoaren eskuetatik atera izan dan emakumerik aundienaren semeak: Ama Birjiñaren seme arñtuak.

Ama maitagañi onen eta gure Done ta Aingeru zaitzarien bitarñtekotasunari eskeñak amaika aldiz urñtu dituzu, Jauna, mundu, deabru ta aragiak gu galdu nairik zabaltzen dizkiguten sareak; beti-betiko eriotzatik amaika aldiz atera gaituzu; orain, ba, eskeñ onez beterik eta Jaungoikoaren semeoi dagokigunez, Jesus Izen gozoa mingañean degula gorapen-opari edeña eskeñiko dizugu aldare-opañi gañean. Auxe da gure gaubela guzien azkena, gure gurñtzaldi guzien elburua.

Auxe da gure Ezege maite oren gau-gurtzaleen egitekoa. Luñeko Jerusalem'en erdian; Eroma'ko gure Eliz Ama Done, Katoliku, Apostolutañaren erdian; kristau-siñistedun guzien aurrean beteko ditugu zure Bizitegi bakañ aben ondoan otoitz eta ildura-penitentzizko armak artuta, gabeko orduak ementxe igerotzeko erabakiak. Eta egun-sentia agertzean Zeori eskeñiko zaitugu aldareko opañian, Zeori, Jauna, zure jainkozko asmo ta zuk ontzat artutako gure asmoen aldeko opari garbi bizia zeran ori.

Au egiten degun guzian zure oroigañi izango degu, ta Azken-apari itzaltsu artan emandako aginduen betegañi; zure Goñputz-Odol-Anima ta jaungoikotasuna gure biotzetan artzen degunean batez ere, eta orain zure Elizan gure Jaungoiko ta Ezege Aundi zeran oren zaitzariok, gero zeruetako Jerusalem'en gure alde eskeñi, oparitu ta il dan Bildots oren gorapenak beti ta beti eskeñ onez abesten kantatzen egon gaiteala.

R. Amen.

(Orain guziak ixil-ixilik gelditzen dira Aldareko Sakramentu Santua sartu zanekoa gogoan artuta biotza eskeñon eta maitasunez berotzen. Oretarako lagundu dezakele gora-goko adirazpen oiek beroiek, eta, are geiago, Jaunak bakoitzari biotzera bialtzen dizkionak.)

ORDU ERDIA JOTZEAN.

(Eskui-aldeko lenengo gurtzañeak.)

Aldareko Sakramentu Santu au utzi zigulako beriz ere gure Jaun eta Jaungoikoari gure eskeñ ona erakutsi dezaiogun, eta Eliz Amaren gogo ber-beraz esan dezaiogun:

Zutik jañi ta bi taldetan ixil-samañ eta geldi-geldi urengo Salmoak esaten dira.)

OSTIRAL GUREN.

Aldarera irixtean, guziak besoak zabalik apur batean egon ondoren, Apaizak edo Gau-Buruak geldi-geldi ta biotzez irakurtzen ditu):

ALAKAK

W. Nere eña ¿zer egin dizut nik? Zertan naigabetu zaitut? Erantzun zadazu... Ejito'ko luñaldetik nik atera ziñudan, eta zuk zure Salbatzaile oni gurutzea gertu zenidan.

(Guziak erantzun.)

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indartsua, Jaungoiko ilezkoña, gutaz erukitu.

W. Larogei urtean basamortuan zeñ eraman ziñudan, mana jaten emanda alikatu ziñudan, luñalde eder batera sartu ziñudan... ta zuk zere Salbagile oni gurutzea gertu zenidan.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indartsua, Jaungoiko ilezkoña, gutaz erukitu

W. Egin dedana baño geiago zer egin beñ nuan zure alde? Nere masti eder bezela landatu ziñudan eta gañatza ere gañatza biurtu zera neretzat: egañ nintzala ozpiña edaten eman zenidan eta aztamakilaz saietsa zulatu zenidan zure Salbatzaile oni.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indartsua, Jaungoiko ilezkoña, gutaz erukitu.

W. Nik zuregatik Ejito ta bere lenen-semeak zigoñkatu nituan, eta zuk zigoñtuta utzi ninduzun.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indartsua, Jaungoiko ilezkoña, gutaz erukitu.

W. Nere eña ¿zer egin dizut nik? Edo zertan naigabetu zaitut? Erantzun zadazu... Nik atera

ziñudan Egito'tik Paraon Itxas Gofian itota; ta zuk apaiz nagusiei saldu ninduzun.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indaítsua, Jaungoiko ilezkoía, gutaz erukitu.

V. Nik itsasoan zear bidea zabaldu nizun, eta zuk aztamakilaz saietsa zabaldu didazu.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indaítsua, Jaungoiko ilezkoía, gutaz erukitu.

V. Nik basamortuan mana emanda beteziñudan; eta zuk belarondokoz eta zigoíkadaz bete nazu.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indaítsua, Jaungoiko ilezkoía, gutaz erukitu.

V. Nik aitzetik atera ta ur bizia edaten eman nizun; eta zuk beazuna ta ozpiña eman zenidan.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indaítsua, Jaungoiko ilezkoía, gutaz erukitu.

V. Nik zuregatik kananearen eregeak jo nituan; eta zuk kañaberaz nere burua jo zenuan.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indaítsua, Jaungoiko ilezkoía, gutaz erukitu.

V. Nik erege-agintea eman nizun; eta zuk buruan arantzazko koroea jaí zenidan.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indaítsua, Jaungoiko ilezkora, gutaz erukitu.

V. Nik eskubide aundi bat emanda jaso ziñudan; eta zuk gurutzeko urkamendira jaso ninduzun.

R. Jaungoiko Santua, Jaungoiko indaítsua, Jaungoiko ilezkoía, gutaz erukitu.

V. Nere eria, ¿zer egin dizut nik? Edo zertan naigabetu zaitut? Erantzun zadazu...

(Guziak belauniko jaí, ta ixilsamar Miserere, mei.)

(Eta gero guziak jaraitzen dute.)

Zure Gurutzea guítzen degu, Jauna; ta zure

Piztuera pozgarria goratzen eta aundiesten degu;
Gurutzearen bidez etofi bait-zan poza lurbira osora.

(Apaizak edo Gauburuak.)

Gutaz erukituta bedeinkatu gaitzala Jaungoikoak;
zeruko argitan bere arpegia ikusi dezagun.

(Guziak.)

Zure gurutzea guitzen degu, Jauna: ta zure Piz-
tuera pozgarria goratzen eta aundiesten degu; gur-
utzearen bidez etofi bait-zan poza lurbira osora.

(Apaizak edo Gauburuak: Respice quaesumus...)

*Ikuñña bere lekuan utzi ta gaubelan gelditu bear ez duten
guziak Gurutzeari belauniko egin eta alde egiten dute.)*

ZAITZALDI-TXANDA.

*(Gaubelako bikoteak ordu betetik ordu betera aldatzen
dira, ondoren datozenekin bat ere otoitzik egiteko zai gelditu
gabe.)*

*(Lenbiziko ordu erdia ixil-ixilik igarotzen da gure Jesus
maiteak Gurutzean gu zeruratzearen eraman zituan nekeak
gogartuaz: Jesukristo'k gure pekatu guziak bere gain artu
ta gu deabruaren atzaparetatik ateratzearen, Berak ezereen
erurik ez zuala, gurutzean guregatik egin zuana ikusita,
artu bezate guziak nor bere pekatuen damu bizi-bizia)*

(Ordu erdi guzietan, belauniko jarita:)

EZKER-ALDEKO LENENGO GURTZALEA

Otoitz egin zagun, anai maiteok, Jaungoikoaren
Eliza Santuaren alde, gure Jaun eta Jaungoikoak
eman dizaiola bakea ta batasuna, ta lufeko efi ta
agintaritza guziak bere mendean jarita, lurbira

osoan zaitu dezala, ta bizitzaldi baketsu zabal baten ondoren Jaungoiko Aita Altsua goratzera eramán gaitzala guziok zerura.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez luferko efi guziei zure aunditasuna azaldu diezun gure Jaungoiko guzialdun Betikoa; zaitu zure Eliza Donea, lu'rbira osoan zabaldua zure siñismen eta aito'menean beti sendo iraun dezan.

(Guziak) Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK.

Otoitz egin zagun gure Aita Santuaren alde ere, Gotzai-burutzako aukeratu zuan gure Jaun eta Jaungoikoak bere Eliza Donearen onerako ta bere mendekoak ongi zuzentzeko beti santutasunean zaitu dezan.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Gauza guziei iraupena ta bizia ematen diezun gure Jaungoiko guzialdun Betikoa, entzun maitetsu gure eskariak eta gure Gotzai-burutzarako aukeratu zenuana zaitu zaiguzu, a'fen; zure kristau-er'ia gure Aita Santu aundi onen mendean Zerofek ongi zuzenduta, siñismenean gero ta sendoagoa izan dedin.

R. Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK.

Otoitz egin zagun Gotzai, Apaiz, Diakono, Sudiakono, Akolito, Eliz-araule, Eliz-irakurle,

Eliz-atezain, Aitoñle, Birjin, Alargun eta Jaungoikoaren eñi Done guziaren alde ere.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Eliztañ guziak santutu ta zuzentzen dituzun gure Jaungoiko guzialdun Betikoa, entzun Elizaren mañ guzien alde egiten dizugun otoitza; zure graziak lagunduta guziak zure aginduetan zintzo jañaitu dezaten.

R. Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK.

Otoitz egin zagun gure Eñege Katolikoaren alde ere. Siñisgabekoen eñi alde guziak Jaungoikoak menderatuta pake zabalean bizi gaitean.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Eñialde guzietako eskubide ta indañak zure eskuan dituzun gure Jaungoiko guzialdun Betikoa; begiratu eñukitsu Españia-alde oni ta beren ustea indañ utsetan jañia daukaten eñiak zure eskui indañtsuz zapaldu itzazu.

R. Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK.

Otoitz egin zagun gure kristau-gaijen alde ere, gure Jaun eta Jaungoikoak beren animetako belañiak eta eñukitasun-atea zabaldu dizaijen; Bataioko uretan pekatu guzien kutsuak garbitu ta Jesukristo gure Jaunarengan gurekin bat egin ditezen.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Zure Elizari egunean egunean seme beñiak ekañtzen dizkiozun gure Jaungoiko guzieldun Betikoa; sendotu gure kristau-gaien siñismena ta burua, Bataioko uretan jaiobefituta zure semeon artean sañtu ditezen.

R. Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK.

Otoitz egin zaiogun anai maiteok Jaungoiko Aita guzieldunari mundutik siñiste okeñak jauñtiki ditzan; gaitzak uruiztatu; goseak kendu; itxitegiak zabaldu; loturak autsi; uruti dabiltzanak etxeratu; gaxoak osatu ta itxastañak kai oneratu ditzan.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Naigabetuen poza ta biotz-audden sendotasuna zeran gure Jaungoiko guzieldun Betikoa, nekepean Zuri ots-egiten dizutenen intziriak eldu bitez Zure-ganaño, beren beañ-izanetan zure erukiak lagundu dien poza guziak izan dezaten.

R. Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK

Otoitz egin zagun siñausle, ereje ta zismatikoen alde ere; gure Jaun eta Jaungoikoak beren siñiste okeñ guzietatik atera ta beñiz ere Eliz Ama Katoliko Apostolutañera ekañi ditzan.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Iñor galdu gabe guziak zeruratu nai dituzun gure Jaungoiko guzialdun Betikoa; begiratu deabruaren maltzuzkeriak nastuta dauzkan anima ga-xoei, siñiste-kontrako beren zitalkeri oro utzi, beren okeraz damutu ta zure egiaren batasunera itzuli ditezen.

R. Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK.

Otoitz egin zagun judatar gaistoen alde ere, gure Jaun eta Jaungoikoak beren biotzetako estalki ori kenduta guk bezela Jesukristo gure Jauna ezagutu dezaten.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Judatar gaistoei ere zure erukia ukatzen ez diezun gure Jaungoiko guzialdun Betikoa, entzun efi oren itsukeria kentzeko zuzentzen dizkitzugun otoitzak; zure egiaren argi dan Jesukristo ezagututa beren ilunpeetatik atera ditezen.

R. Amen.

EZKER-ALDEKO LENENGOAK.

Otoitz egin zagun siñisgabeen alde ere; kendu dezala gure Jaun eta Jaungoikoak beren biotzetako zorigaitza, gezufezko jainkoak utzi ta egiazko Jaungoiko bizi ta bere Seme Bakar Jesukristo gure Jaunarengana itzuli ditezen.

ESKUI-ALDEKO LENENGOAK.

Pekatariei, eriotza ez, beti bizia opa diezun gure Jaungoiko guzialdun Betikoa; entzun samurki gure otoitza, siñisgabeak beren gezuñezko jainkoengandik alderatu ta zure Eliz Donera erakari itzazu zure izenaren gorapen eta aintza aundiagorako.

R. Amen.

(Otoitzak amaitu ondoren, orduaren azkenerarte ixilikako oloizketan gelditzen dira guziak.)

GABONTZAREKO GAUBELA.

Gorapenak.

(Guziak belauniko)

Gurutze Santuaren...

(Ixilik)

Nere Jesukristo Jauna...

(Exerita)

Une abetan gogoratu beari degu, nere anai kristau maiteok, gure bizitzako urte bat ba-dijoakigula geiago ez etoftzeko.

Bereala sartuko gera, Jaungoiko erukitsuak bizia ematen baldin ba'digu, beste urte beñi batean; gure santutasunean gogotik auñera egiteko emango digu Jaungoikoak urte beñia.

Urte zara ta urte beñia zerura-bide onetako

gudatean Jesus gure Gudalburuak jaítzen dizkigun buruka-aldiak besterik ez dira.

Orain guítzen degun Osti órétan, siñistu dezagun sendo, asierarik eta amairik ez duan Jaungoiko Betikoa guítzen eta goratzen degu; gauza guzi-guziak beti aúrean dituana; zeru-luák argi-argi ikusten dituan Jaungoikoa berbera.

Jainkozko Osti Done órén aúrean siñismen bizi-biziaz jaí gaitean, egi-egitan eta dan bezela órte dago Jesukristo gure Jauna; guetako bakoi-tzarentzat denbora amaitzen danean Órexek epaitu juzgatu beaí gaitu; eta baita gizon guzientzat denbora amaitzen danean azken-auziko egun bildu-gaí artan ere.

(Geldiunea.)

¡Aldia! ¡Denbora!... Aldia bezin aldin balio aundiko gauzarik ez da ezer; ta ezta geiago alpefik galtzen danik ere. Aldiaren orde, denboraren bidez erosi beaí degu betikotasuna. Aldia, denbora ondo igarotzen baldin ba'degu, beti-betiko zoriona irabaziko degu: gaizki igarotzen ba'degu beíz... beti-betiko zoritxaía..

Santa Teresa, betikotasuna gogoratzen zuanean, kordegabetuta bezela gelditzen zan. ¡O betikotasuna, betikotasuna, betikotasuna!.. zioala. Done guzien bizitza guziko kezka auxe izan da: edo beti-beti zorioneko, edo beti-beti zorigaiztoko. Eta begien aúrean izan oi zuten San Paulo Apostoluak erakutsitako burubide zuzena: garaia, denbora degun bitarte, onean igaro dezagun.

Eriotza orain etoíko baldin ba'litzaiguke ¿biotz-zabal eta pozik aítuko ote genuke? Ba-ote da gure artean bere Jaungoikoarekiko kontuak

ain garbi dituanik, eriotzari: Atoz, esateko? Atoz nai dezunean? Luñean geiago zer egiñik ez daukat-eta, jo zure segaz nere burua... esateko?

Gizonik zuzenenak ere: ¡O eriotza! esango lioke. ¡Óren azkar nola zatoz? Beste urte bete bada ere, beste egun bat ba, beste ordu bete, unetxo batzuek utzi ezazkidazu oraindik... Utzi oraindik semeak azi arte... Utzi oraindik esku artean darabildan arazo au amaitu arte... Bidegabezki eskuratu nuan au atzera bere jabeari biurtu arte... Nere mingañoak ondatu zuan izen on ura beñiz itzuli arte... Utzi nere gaiztakeri ta biziera txaraz eman ditudan gaizbide ta erakutsi okeñak zuzendu arte... Utzi, eriotza, utzi zadazu unetxo bat: Jesus esan... ta damutu ta zeruratzeko...

(Geldiunea.)

Oraindañoako denbora nola igaro degu nere anai maiteok? Gure bizitza guzian eta batez ere orain bukatzen zaigun urte onetan, egunean egunean beti gure zai ta zai Jaungoikoak izan digun eramapen aundiaz zer egin degu? ¿Ta urtearekin batean Jaungoikoaren eramapena ere bukatuko baldin ba'litz?

Eta Jesukristo'ri, aldia zuretzat amaitu da; sartu zera betikotasunean, entzungo ba'genio? Emen zure Epaille jueza... ezer onik gabe esku utsetan zatoz? epaitua zaude... ¡Madarikatua! Betiko sutara!

Gau-guñtzaleak gerala-ta, Aldareko Jesus'en Zaitzaritzako aukeratuak gerala-ta, ez gaitean arotu. Oñexegatik gaude obeak izatera beartuak, eta azken-egunean besteai baño kontu zorotzagoa artuko digute guri. Urte azken onetan egin beart degun artu-emanen garbitzean, Jaungoikoari baño

munduari emandako egunak geiago baldin badi'ra, galduan gaude, aldia alpeñik galdu degu.

Jesukristo'ri ikustaldi bat egin eta guñtzera etoñi al gindezkeala, alpeñkeriz egun guzian etoñi ez baldin ba'gera, asti galdua. Gure taldekoen gaubelara etoñtzeari zabañkeriz edo aitzaki maitzaki utzi baldin ba'diogu, asti galdua. Jaunañtu al izan eta añtu ez ba'degu, asti galdua. Meza entzun al izan eta entzun ez ba'degu, asti galdua. Norbaitekiko gure nagusitasun edo adiskidetasuna dirala bide, Jesukristo ezagutarazi ta Aldare auñera erakañtzeko alegindu ez ba'gera, asti galdua. Gure egitekoak egin eta gure goñputz-animeñ bidezko alaialdi ta zabaltasun batzuek eman ondoren, guri dagozkigun Eukaristi-arazoen aldeko lanetan jañdun ez ba'gera, asti galdua. Aldareko Jesus'en gorapen, izen aundi ta aintzarako zerbait egin al izan eta egin gabe lotaratu baldin ba'gera egunen batean, asti galdua.

Eta jakiñaren gañean gaiztakerian emandako aldiñ zer esan dezakegu?... Emen gaudenen añtean, anai maiteok, ez al da iñor Luziper'ek bezela Jaungoikoa, bere legeko ta Elizareneko agindu ta erakutsiak oñazpiratuaz, auñez auñe iraintzen eta naitgabetzen duanik egongo? Judas'ik ez al da gure añtean izango... baldin bale'go, guregandik uruti penitentzi egin ta gizon beñitu añte ez dedila beñiz gureganatu.

(Geldiunea.)

Baña guziok, zuek eta ni, Osti Done, Osti Garbi, Osti orbangabe oñen auñean pekatari lotsagañiak gera ta guzien auñean aitortu beañ degu pekatariak gerana. Gure pekatuak, zure etxe onetatik alde egindako seme ondatzale gure anaien pekatuak,

Aldareko Sakramentu Santu oñen kalte egin diran pekatu, oben, irain, txafkeri ta lotsagabekeriak askesteko auzpeztu gaitean bere Bakaulki aurrean barka-eske ta Dabid errege Done damuzalearekin esan dezaiogun damaturik.

(Belauniko ta bi taldetan Miserere mei.)

(Gero, guziak zutik.)

(Zuzentzaileak irakurtzen du.)

Garbitokiko anima gaxoen alde otoitz egitea alkañ-maitasunak agintzen digun egipide zuzena da. Otoitz egin dizaiogun ba Jaungoikoari guzien alde, batez ere gu beartuenak gaudenen alde ta Eukaristi lanetako lagunkide ta ongileen alde.

(Orain bi taldetan De profundis.)

(Eta gero zuzentzaileak irakurtzen du:)

Ixil-ixilik egon gaitean, anai maiteok, urte beñiaren asierako dangada entzun zai; kanpaiaren amabi dangadak, Jaungoikoak bere esku maitatsuz gaizkietatik jaso ta grazizko bizitza beñirako egiten digun dei itzaltsu bezela erori bitez banan-banan gure biotzetan.

(Geldiunea. Belaunikatu. Amabiak jotzen dituenean Te Deum eta ondoren zuzentzaileak:)

Aldareko gure Jauna ta Berarekin ainbeste ontañte ta ainbeste aldiz arñtu izan degulako eskeñ berezi-bereziak eman beañ dizkiogu Jaunari, Ama Birjiñarekin batean beronen abestia kantatuaz:

(Bi taldetan Magnificat.)

(Ikuñiña bere lekuan utzi ta guziak belauniko.)

OTOITZA.

Gure Jaun eta Jaungoikoa. Sañtu gera urte berian. Urte onetan onetsi ta zoriondu gaitzatzu, ta gure biotzak zureganako ta gure lagun urkoenganako maitasun bero sutsuz bete ezazkiguzu. Gure egite guziak donetzeko beti gurekin egon zaite. Zeruetako zoriona irixteko beař ditugun gořputzanimetako ondasun guziak eman ezazkiguzu. Nai-gabetuak poztu, gaxoak osatu ta batez ere gure Jaungoiko maite ořek pekatariak oneratu itzazu. Gure Aita Santua, Gotzaiak, Apaizak, Zuri eskeñita bizi diran guziak zorionez bete itzazu. Apaiztarako ta gau-guřtzaletarako gertutzen ari diran guziak zure emaitzez aberastu itzazu. Gure eřiaren siñismen sendoa zaitu ta piztu ezazu: gure agintariak argitu ta zuzendu itzazu. Anima gaxoak Garbitokitik lenbailen atera itzazu. Ondasun abek guziak Jesus izen gozoa, Salbagile-izen edeřa gauřko egunez ařtu zuan zure Seme maitearen irabaziengatik eskatzen dizkitzugu. Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean amaigabeko egunetan bizi dan Jesukristo gure Jaun eta Jaungoikoarengatik.

R. Amen.

(Exeri.)

URTE BERĪA ASTEKO GOGORAKIZUNAK.

Urte beři ĵAu itz edeřa!

Urte beři eguna, egun alaia da. Gabonetatik zortzigarfen egunean datořen jai-egun pozkařia.

Eliza gure Amak, Jaunak gureganako maitasunez gauko egunez eraman nai izan zuan Bilebakitzea gogoratzeko, jañi zuan gauko jaia.

Gauko egunez asi zan ba Jainkoaren ta gizonen artean bitarteko egiten. Gure oben pekatuen ezau-gaia ta zoia bere gain artu ta gauko egunez ixurizituan gure obenen ordaingañi bere lenbiziko odol-tantoak.

Neuñigabeko eskeintza onekin batean bera dan guzia, bere bizitzako une guzi-guziak eskeintzen ditu jaio ta berealako egun onetan.

¡Au bai egiazko maitasuna! Jaungoikoak gizonei digun maitasuna aundia!

¡Maitasun au gure maitasunaz ordaindu beardiogu!

Urte beñian sartu gera; asiera-asieratik eskeñi dezaiogun berau maitasun-Jaungoikoari; ta urte guziko egun bat bakara ere, une bat bakara ere ez dediñia izan Jaungoikoaren agindupean eta gorape-nik aundienerako izango ez danik; guzia oso-osorik Jaungoikoarentzat.

Eta opari onekin batean eskeñi dezaiogun gure anima, gorputz, zañetako odol guzia, gure zintzotasun eta maitasuna erakusteañen azkenengo tantaraño ixurtzeko gertu.

Urte beñiaren asieran oraintxe da garaia, gauko eskutapenak mundu zabalean eragin zuan beñikuntza gogoratuta, gure biotzak ere Jaungoikoaganako maitasunean ta gau-guñtzaleen egitekoetan indarbeñitu ta berotzeko.

Urte beñi onetan beti ere gero ta zintzoago ta biotz beroagotuz auñera egingo al degu!

Amaitu dan urte zaia bezin arin eta igeri gabe joango zaigu beñi au ere.

Beronen azkena ikusteko Jaungoikoak bizia ematen baldin ba-digu, guzia ondo ta doneki igaro degula-ta, ura poza ta atsegiña izango degu!

Orain asten degun urte beñi onetan, gure Jaun eta Jaungoikoa oraindañoko urteetan baño gañtsukiago maite izan eta bere aginduetan zintzoago ibiltzeko asmo eta erabaki sendoak añtu ditzagun orain ixilean.

(Geldiunea.)

(Zuzentzañeak.)

Asmo eta erabakiok zeatz-zeatz bete ditzagun Espiritu Santuaren añaia ta indaña eskatu beañ degu orain biotz-biotzetik.

(Belauniko jañi ta bi taldetan: Veni, Creator.....)

(Amaitu ondoren Zuzentzañeak.)

Eta gau onetan añtu ditugun asmo abek guziak Aldareko Jesus'enganako maitasun eta zaletasuna geitutzeko izan ditezen Ama Birjiñari ta gure zeruko Zaitzari Paskual Bailon Doatsuari eskatu dizaiagun beren bitañtekotasuna.

(Belauniko Sub tuum præsidium...)

(Amaitzeko; burua makuñ Maria Birjiña'raño.)

Bedeinkatua ta goratua Aldareko Sakramentu Santua ta Maria Birjiña gure Ama maitearen Soñtze garbi orbaingabea. Amen.

(Zutik Zuzentzañeak eta beste guziak aitaren egiñaz)

V. Dominus det nobis suam pacem.

R. Et vitam aeternam. Amen.

TALDE BÉRIAK IENENGO GAUBELAN EGITEKO
ESKEINTZ-OTOITZA.

Oí Sakramentu Santuan zauden gure Jaun eta Jaungoikoa!

Ona emen gure Érege Jaungoiko oíen aúean Zeroírek aukeratutako zure gau-guítzale-talde beíria. Gu baño agian askoz obeak diran milaka kristaue-tatik gu aukeratu gáituzu. Ez dakigu nola eskeńak eman, Jauna; baño emen zure úre-úrean ibiltzeko deitu gaituzulako biotz-biotzetik eskeńak ematen dizkitzugu ezerez utz abek.

Satanas eta bere zorakeri ta aundiuskeriak utzi ta Zuri bakarık jańaituko genizula agindu genizun Bataio santuan; agindu ura orain beńitzen dizugu. Kristo'ren benetako gudariak izan nai degu; peka-tua azpiratu ta zure agintea eńi guzietan jańtzeko gogoń egingo degun gudariak.

Gau onetan zure ikuńin bandera santu zuri ońe-kiko zintzo iraungo degulakoa agintzen dizugu; gure sinismen edeńaren ezaugańi dan ikuńin ońen alde zańetako odola ere emateko gertu gaude.

Ikuńin ońen kerizpean ańtuko degu beań bezela *Maitasunezko Sakramentua*. Ikuńin ori munduar-en aúean bilduńik gabe zabaldua erakutsiko degu *Sinismenaren batasuna* eta gizon guziak Zurega-tik eta Zuregan lotu ta batuko ditugu *Maitasun-loturaz*.

Betoń guregana, Jauna, zure Eukaristi-éreinoa!


Zu ańtzen zaitugu Aldareko gure Jesus maite ori ańtzen zaitugu gure Érege Aundi ta Gudalburu bi-kaintzat. Zure gau-guítzale-taldeko gudari zintzo

bulañtsutzat aitu ta zaitu gaitzazu, luñeko buñuketan gogof egin eta garaitu ondoren, zeru goian zure eskuetatik sari edeña aitu dezagun. Amen.

GURTZALE BERIAK ARTZEKO APAIZAK ESATEN
DITUEN ITZAK.

Gure Jaun eta Jaungoikoaren aintzarik aundienerako ta Aldareko Sakramentu Santuaren gorapenerako, Jesukristo gure Jaunaren gau-gurtzale izentatzen zaituet eta gau-gurtzale-taldeai dagozkien grazi, ontarte ta irabazi guzietarako eskubidea ematen dizutet Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

R. Amen.



A. MENDIBURU'GANDIK ARTUTAKO
OTOITZAK. (1)

—•—

1. Jesus'i nere biotz eta gauzak utziaz.— Aitzen etzeran Iturria ta egimen guzien Jabe, Jesus maitagarria. Zerगतिक onen ongi nai diozu, gaiztakeriz betea egondu den eta Zuganako dakizun adiña oztasun izandu duen nere biotzari? Añiturik naduka onetan zor dizudanaren ezaguerak, eta zor' oni erantzun naiez nago. Nai bazenu, gauñdanik emango nikezu (nizuke) zor' onen alde nere biotza; biotz onetan arki ditezkeen asmo ta gauz on guziekin. Badakit ezerez bat bezela dala zuretzat au guzia: baña ikusten dezu, ez dudala auek baño gauza oberik; ezta Zuk ditudan guzien artean naiago dezunik ere.

Oña bada, Jesus ona, gauñgero izan bedi zurea bere gauza guziekin nere biotz osoa. Gauñgero, begira zayozu zureari bezela. Erakutsi zayozu nola bizi, ta nola zu maitatu. Zeretzat egin zenuen; izan bedi bada, ongi bizi dela, dena zurea. Nigatik bizia gurutzean eman artean ta geroz aldarean egin dezunaz oroitu ezkerro, ez dut lotsarik edozein gauza zuri eskatzeko. Eskatzen dizut, bada, begira dagidazula aitak, adiskideak eta erakusleak bezela. Aitak beze-

(1) Oso egokiak dira Jaunari agirian dagoanean egiten zaizkion ikustaldi ta aguraldietarako A. MENDIBURU'gandik artuta ezartzen ditugun Otoiz oek.

la bañkatzeko nere utsak. Adiskideak bezela, beaŕ-
ean aŕkitzen nazanean, eskua eman ta laguntzeko.
Ta erakusleak bezela, egin beaŕ dudan guzia niri
erakusteko.

Ez det gauŕgero nai nere burua begiratu;
begiratu nai det zure Biotza. Nere buruaz azturik
bizi nai dut, zure Biotza astiroago maitatzeagatik.
Zureak dira, Jesus, gauŕgero nik egingo ditudan
gauzak; izan bitez bada guziak zure begietan ageŕ
ditezkeanak. Nai nuke jakin nola nik zu maitatu,
beti zu maitatzen beŕtatik asitzeko. Erakutsi zadazu,
aŕen, maitatze au, ta indazu maitatze onek eskatzen
duen laguntasun eta eskeŕ guzia. Ala geŕta dedila.

2. Mezerdi ondoren esateko Otoitza.—¡Je-
sus'en eta nere Aita zerukoa! Ematen dizut, zoŕ dizu-
danaren alde, Zure ta nere maitasunez uŕtzen da-
goen eta Zuk nai dezun ondasun utsa besterik ez
duen Zure Seme-Biotza. Aŕdezaketu bai; nere da,
nigatik dator, bada, aldarera; ta zoŕ dizudana baño
geiago da ta geiago dezake; baña ez naiz asetzen
nere zoŕak ateratze utsarekin: zoŕen gaiñ ematen
dizudanagatik indazu Zu ziñez maitatzeko, ta mai-
tatze onetan nere egunak bukatzeko beaŕ detan gu-
zia Al-ere ez didazu emango ematen dizudan Jesus-
-Biotzean aŕtzen dezuna baño geiago.

3. Ikustaldietarako Otoitza. — ¡Gugana-
ko eŕukitasunez ta maitatzez beterik zauden eta
nigandik beintzat oztasuna eta eskeŕgabekeria bai-
zik ikusten ez dezun Jesus! Zeŕk geldi erazi zaitu
aldare oŕetan? ¿Gurea bezain erantzute txafentzat
etzen asko ta geyegi eriotzeko orduraño gugatik
egin zenuena? Obenik gabeko oŕek, obendun eŕu-

kañiak galdu ez gindezen, utzi zenuen ura zitza-tela arantzak zure loak eta burua, zigorkadak biz-kaña, ta buñi-ziri ta iltzeak zure ezkuak, oñak eta Biotza; ta azkenean gelditu ziñan, odola ta bizitza galdurik; eta neke ta eriotz oñen gogoña asko ezpali-ra bezela, maite gaituzula guri adirazteko, gelditu nai izan dezu aldare maian; zenekiela or gelditu ez-kerro ikusi beaño zenituela milaka txañkeriak egu-noro. ¡Erantzun ezezen, noiz ezagutuko ere dut nik zuri zor dizudan maitasuna! Oñelako zoñik ezpanu bezela bizitu naiz oraindañoakoan, ta nere eskerga-betasun ta txañkeriez zor beñiak egiten ditudala. ¡Ai ene! Ez al dut beñiz onelako utsik egingo! In-dazu, añen, Jesus, biotza erdiia lezakean orainda-ñoako nere utsen eruki ta damutasuna. Eskatzen di-zut damutasun au nere utsegiteak gogoratzeaz odo-lezko izeñdia zeriezula gelditu ziñanean izandu ze-nuen Biotzeko estutasunagatik. Indazu oñez gaiñ Zu ziñez maitatzeko beañ dudan laguntasuna. Mai-tatzen etzindudanean ere, nai zenuen maita zintza-dan; ona bada non zu maitatu naiez añkitzen nazan. Nola, bada, uka zenezake oñetarako eskatzen dizu-dan gauzarik? Ez, nere Jesus, ez, añen, ukatu, Zu maitatzeko, ta gauñgero zurea izateko beañ dudanik.

4. Jesus maiteari Otoitza.—Gure maitasunez urtzen zauden, gu eruki gaituzun, gu ondasunez bete naiez zabilzan, eta guk zeran guzia añzaitza-gun nai zenukean ¡Jesus maitagaña!

Eun mila bideñ eta geyagotan egunoro gure zoñen alde, mezetan zure Aitareñ begietarazen zeran ¡Jesus gure Jaun eta Jabe maitea!

Zer deritzazu zutaz azturik bizi diradenen biotz-gogoñtasunaz?

Etzan aski (naikoa) diguzun naia ta maitatze aundia bein guri erakustea?

Zeritako da, Jesus, gu bezain eskeřgaiztoko batzuentatik odolezko nekez eta izerdiz beterik bizi-tzea?

Etzenekien zenbait iraiñ, zenbait lotsagabekeri, zenbait txarikeri ikusi beara ziñan aldarean gurekin gelditu ezkeror?

Ori guzia zenekiela gelditu ziñan eta zaude gurekin. ¡A ta zenbat zor dizugun, Jesus ona! Ona ni beintzat, Jesus, siniste-ausle (ereje) ta kristau gaiztoen eskuz egin zaizkitzun txarikeri ta done-auste (sakrilejio) en damuz beterik zure oñetan. ¡A Jesus! Oren gaizki erabili zaitudalako damuz erdira balekit biotza! Negařez edo nere odolarekin garbi albanitza egin zaizkitzun bidegabeak, zikindu dituzten baztařak, pozik emain (emango) nuke dudan guzia.

Geldi bitez, ¡afen!, barkatuak aldarean gelditu ziñanetik oraindaño ikusi dituzun txarikeri ta utsegite guziak. Biotz guztien jabe banintz, diranak ekařiko nituke zure oñetara utsegin dutelako damuz uratuak.

Bana, ¡ay! zeritan nabil ni besteren utsak edo txarikeriak ekusten? Ez naiz ni gaizkile gaiztoetatik bat? Ez naiz ni beste anitz (asko) bezela bizitu Jesus'i aldarean zor diodaneren beřirik ez banu bezela? Askok baño geiago zor diodala, ez naiz ni, besteak bezain labur Jesus onarekin ibili?

— Ala, da, Jesus, ala da; ta ori da odei beltzez estalia dagoen gaba bezain ilun nere biotza dadukana. Ez dakit zer egin nezakean onen labur eta gaiztoa zurekin nazala oroitzeak ematen didan nekepetik nere burua ateratzeagatik.

Efe nazazu, Jesus, ufa nazazu edo egizu nitzaz nai dezuna; ta barkatuak geldi bitez oraindanioko nere utsegiñak.

¡Asefetua iduki zaitudan Jesus'en Aita! zere Seme maitearen Biotzeko maitasunagatik eta Seme onen Amak ura gurutzean josirik ikusi zunean eramanean biotzeko estutasun eta nekeagatik eskatzen dizut, utzi dezazula beliko zere asefea ta lagun zakizkidala orain daukadan asmoan nere egunak igarotzen edo bukatzen. Zuri eman zaizkizun naigabeen eta Zure Semeak aldarean ikusi dituen txarkerien damuz beterik bizi naizen artean ibiltzeko asmoaz nago. Zor diodan maitasunagatik Jesus maitatzen dudala beti bizitzeko asmoaz nago.

Joango naiz alik maizen, alik sañien, elizan Jesus ikustera.

Oraindaniño baño erneago ibiliko naiz nere aitor-tze ta Jaunañtzeetan, meza entzuten edo beste edozein gauza on egiten dudanean; aiki ez dedin batean ere lenekoetan bezelako utsegite ta txarkeririk.

Nere gogoz ez da bat bakañik ere akituko Jesus nik bezela ta nik baño gogotikago maite izango ez duanik, eta al ditudanak oñetara zuzenduko ditut.

Indazu, ¡añen!, nere asmo onetan beti irauteko, laguntasuna».

A. M. D. G.

ARKI-BIDEA



JESUS'EN BIOTZA ETXEAN	
Kristo gure Jauna gizarteko Erege	
Jesus'en Biotzari etxe ta etxekoen Eskeintza	10
Eskeintza egiteko era egokia	15
Eskeintz-Otoitza	16
JESUS'EN BIOTZA ELIZAN	19
Jesus'en Biotzaren egunean (Litaniak)	20
Jesus'en Biotzari gizadia eskeintzeko Otoitza	22
GAUGURTZAĒEN EGITARAUA — AĀATSEKO OTOITZAK	23
Pekatu ordaingaritzako Otoitza	26
Aldareko Jesus'ekin ordu laurden	29
Irutasun done doneari Trisajioa	33
» » » iru gorakuntzak	36
Parkamenak irabazteko eskeñia	39
GOIZEKO OTOITZAK	40
Gure Jaunartzeko gertaera	42
Eskeñak emateko egintza	45
Bukaerako alde egitea.	48
Jesus gurutzatuaren aŕean	49
OSTEGUN GURENEKO GAUBELA	50
Zaitzaldiko ordua	53
ORTIRAL GUREN	57
Zaitzaldi txanda	59
GABONTZAĀFKO GAUBELA	64
URTE BĒRIA ASTEKO GOGORAKIZUNAK	69
Talde beñiak lenengo gaubelan egiteko Eskeintz-Otoitza.	72
Gurtzale beñiak artzeko Apaizak esaten dituen itzak	73
A. MENDIBURUGANDIK ARTUTAKO OTOITZAK	74
Mezerdi ondoren esateko Otoitza	75
Ikustaldietarako Otoitza	75
Jesus maiteari Otoitza	76

